

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

IGANDEAREN KRISTAU OSPAKIZUNA

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

1993, GARIZUMA-PIZTUERAKO PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1-2. z.)

Idazkiaren egitura (3. z.)

I.- IGANDEA, GAUR (4. z.)

Erligioarekiko praktika, kultur eskaintza eta astialdia (5-6. z.)

Nekazari giroko gizartetik industri girokora (7. z.)

Norbanakoa eta masifikazioa herri eta hirietan (8. z.)

Sekularizazioaren gertakuntza (9. z.)

Gizarte aniztasuna eta eliz elkarteak (10. z.)

Lan jarraituaren ikuspegi ilunak (11. z.)

Beste zenbait galdera (12. z.)

**II.- KRISTAUON IGANDEAREN BALIOAK ETA ABERASTASUNA
(13. z.)**

Igandea, piztueraren eguna, asteroko Pazkoa

- Piztueraren eguna (14. z.)
- Jaunaren eguna (15. z.)
- Berpiztua geure artean dugu (16. z.)
- Pazkoaren asteroko sakramentu (17. z.)

Igandea, geroko bizitzaren irudi

- Igandearen alderdi eskatologikoa (18. z.)

- Bukaerako Pazkoaren aurreratzea (19. z.)
- Itxaropenaren eguna (20. z.)
- Itxaropena, baita munduarentzat ere (21. z.)

Igandea, Elizaren eguna

- Elizaren ospakuntza (22. z.)
- Igandeak egiten du Eliza (23. z.)
- Elizaren misterioa dastatu eta bizi (24. z.)
- Eliza munduaren aurrean (25. z.)

Igandea, kristauaren eguna (26. z.)

- Kristauaren eguna (27. z.)
- Kristauaren nortasuna (28. z.)
- Gizakiaren eguna (29. z.)

III.- IGANDEAREN EZAUGARRIAK (30. z.)

Kristau batzarra

- Igandea, batzar eguna (31. z.)
- «Ez utzi gure batzarra» (32. z.)
- Elizaren agerkunde (33. z.)
- Gizakientzat ezaugarri (34. z.)
- Kristau batzarraren gaur egungo garrantzia (35. z.)

Eukaristia

- Igandea, Eukaristiaren eguna (36. z.)
- Pazkoaren eta Jauna tartean egotearen sakramentu (37. z.)
- Eukaristiazko jaunartzea (38. z.)
- Betierekotasunaren sakramentu (39. z.)
- Eliz elkartasunaren misterio (40. z.)
- Igandeko Mezaren agindua (41. z.)

Jainkoaren Hitza

- Igandea, Hitzaren eguna (42. z.)
- Mahai ugaria (43. z.)
- Homiliaren egitekoa (44. z.)

Senidearteko elkarmaitasuna

- Igandea, elkarmaitasunaren eguna (45. z.)
- Elkarmaitasunaren eskakizunak (46. z.)
- Senidetasunaren eguna (47. z.)
- Muga gabeko elkarmaitasuna (48. z.)

Atsedena

- Igandeko atsedenen legea (49. z.)
- Kristorengan daukagun askatasunaren ezaugarri (50. z.)
- Betiko atsedenen agintzaria (51. z.)

- Atsedena eta kontenplazioa (52. z.)
- Atsedena, giza harremanak eta norberaren garapena (53. z.)

Jaia eta alaitasuna

- Igandea, jai nagusia (54. z.)
- Festa kutsua (55. z.)
- Alaitasuna eta beronen sustraiak (56. z.)

IV.- IGANDEAREN ESKAKIZUNAK (57. z.)

Bizitzaren oihartzuna ospakizunean (58. z.)

Igandeari dagokion bezala arabera biziitzea (59. z.)

Igandea eta kristau testigantza (60. z.)

Igandea eta konpromezu hiritar-soziala (61. z.)

V.- ZENBAIT PROPOSAMEN IGANDEAREN KRISTAU OSPAKIZUNA BIZIBERRITZEKO

Pastoral sormenari erronka (62. z.)

Guztion eginkizuna (63. z.)

Katekesi funtsezkoa (64. z.)

Batzarra eta igandeko Eukaristia

- Elkarte pentsakera landu (65. z.)
- Norbere elkarrekin (66. z.)
- Igandeko ospakizunak, apaizik ez denean (67. z.)
- Parte hartze bizia (68. z.)
- Buru egiten duen apaiza (69. z.)
- Ospakizunera etortzen ez direnak (70. z.)
- Gazteen aldentzea (71. z.)

Jainkoaren Hitza entzutea (72. z.)

Senideekin elkarbanatzea (73. z.)

Jaia, eta Jaunarengan poztea (74. z.)

SARRERA

1. Bada zenbait urte, Garizuma-Pazko aldi honetan, elkarrekin egindako Pastoral Idazki bat eskaintzen dizuegula. Hain zuzen ere, 1975. urteaz geroztik, goetzainok zuen arretari dei egin nahi izan diogu, kristau fedearen funtsezko zenbait alderdi aztertzen, eta gaur egungo giza arazoetan fedea nola txertatu ikusten zuei lagundu asmoz.

Badakigu, zuetako asko urteroko Idazki honen zain egon ohi zaretela, Jesukristoren jarraitzaile gisa zeuon bizitzan gehiago sakontzeko. Poz hartzen dugu, gure Idazki honek, hainbat elkarte eta taldetan, gogoetarako ahalegin nabarmena sortzen duela jakitearekin. Oraingo honetan, *Igandearen kristau ospakizuna* da aztertu nahi dugun gaia.

«Bere sorrera Kristoren piztuera egunean bertan duen ohitura bati jarraituz» (*Sacrosanctum Concilium*, 106. zenb.), kristau elkarteak batzarrean bildu ohi dira zortzian behin, igandez, kristau bizitzari izaera eta gorputza ematen dioten alderdiak elkartean bizitzeko: pazko misterioa gertaberritzen dute, Idazki Santuetan duten fedea janaritzen eta beren itxaropena aldarrikatzen; Kristorekin duten senidetasunaren poza dastatzen dute, elkarrekin otoitz egiten eta, munduko eta pobreen beharretaz oharturik, elkarren artean banatzen dituzte beren ondasunak. Igandearen ospakizunean, beraz, batean biltzen dira kristau fedearen baliorik sakonenak.

Elizaren bizitza loturik egon izan da, mendeetan zehar, igandearen ospakizunak ezartzen zuen pausuari. «Asteroko Pazko» honek eusten dio kristauen fedeari; horrek janaritzen du eliz elkarteko izatearen kristau kontzientzia; eta indartu ere horrek indartzen ditu, Jesus hil eta berpiztuarenganako fedearen arabera bizi ahal izateko. Horregatik esan daiteke, igandea hil edo biziko erakunde bihurtu dela, apostoluen garaietatik hasita, kristau elkarteentzat.

Igandea, bestalde, garrantzi handiko erakundea da gizarte alorrean. Mendeetako gure kultura honetan, igandeak markatzen du, eskuarki, lan eta atsedeen aldien joan-etorria; erraztasunak ematen ditu pertsonen arteko harremanetarako, batez ere lagun eta familiarako harremanetarako; egokierak ematen ditu naturarekin harreman bizigarriak izateko, eta aukera ere bai era askotako kirol jardunetarako. Ez da harrizkekoa, soziologo eta politikariek beren arreta eskaintzea, igandeak gizarte bizitzan esan nahi duen guztiari. Igandeari buruzko ikuspegi desberdinek beren ondorioak dituzte, onerako eta txarrerako, bai pertsonengan bai giza elkartean.

2. Eliz artzainontzat, igandea bera eta igandea bizi eta ospatzeko era ere ez dira axola gutxiko gauzak. Kultura eta ohitura aldaketen gaurko une honetan, indar berria eman nahi genieke, igandea egoki ospatzen lagunduko duten kristau jarrerei. Eta, aldi berean, dei egin nahi dizuegu, kristauon «jai nagusia» den igandea era onuragarrian bizitzeko aurkitzen ditugun erronka eta arriskueta arreta jar dezazuen.

Mundu guztiko gotzain batzarrak arreta jartzen ari dira, berriro ere, igandean, eta kristau gisa igandea egoki ospatzean. Zehazki, Espainiako Gotzainen Batzarrak, joan den maiatzean egindako LVI. Biltzar Nagusian, *Igandearen eta jai egunen ebanjelizatze alderdiari buruzko Pastoral Irakaspena* eman zuen argitara. Lerro berean dago, oraintsu Joan Paulo II. Aita Santuak mundu katoliko osoko gotzainei egindako aholku idazkia ere, eta honela dio:

«Etengabeko arreta jarri behar dute eliz artzainek beren fededunen hezieran, hauek igandero ospa dezaten, Kristok bere Pazkoaren misterioan burututako egintza harrigarria, eta munduaren aurrean aldarrika dezaten»¹.

Gure Pastoral Idazki honek, lehenengo eta behin, apaiz eta fededunen kontzientziei egindako dei ozen eta indartsua izan nahi du. Geure kristau elkarteen egoeratik abiaturik, igandearen esanahiari buruz astiro gogoeta egiten lagundu nahi dizuegu. Laburbildurik eta egoki moldaturik azaldu nahi dugu hemen, igandeari buruzko irakaspen aberatsa eta ederra. Vatikanoko II. Kontzilioak emandako argibideei jarraituz egiten dugu hori; izan ere, Itun Berrian sartzen dira Kontzilioaren zainak, eta Eliz Gurasoen idazkietan eta Eliza desberdinetako liturgi liburuetan aurkitzen du bere erakutsirik ederrena.

Zuen eskuetan gai ugari jartzen dugulakoan egiten dugu guzti hau, idazlan gehiago irakurtzen eta elkarrizketan jarrai dezazuen, gaia sakontzeko eta ondorioak ateratzeko, bai nor bakoitzari bai elkarteari buruz. Oinarri sendoa izango da guzti hori, ondoren, kristau herriaren heziera hobetu nahirik, katekesi egitarau berezituak egin ahal izateko; hil edo biziko garrantzia baitu gai honek kristau bizitzaren oraingo eta gerorako, lekuko gure Elizetan.

Era berean, espero dugu, Idazki honek erakutsi ahal izango diela fedegabeei, zer den kristauok «Jaunaren egunean» ospatzen duguna, eta zer esan nahi duen guretzat igandeak, erlijio alderditik eta gizarte bizitzarako dituen balioetatik begiratuta.

Idazkiaren egitura

3. Bost zati ditu gure Idazki honek, desberdinak izan arren elkarrekin lotura estuan dauden zatiak. Lehenengoan, adierazgarriak diren zantzu batzuk azpimarratzen ditugu, eta gure garaiotako aldaketa sozial handiek halako astindua eman dioten igandea, gure artean nola bizi ohi den azalduko dugu. Bigarren eta hirugarren zatiak dira Idazki honen irakaspen muina; bi zati horietan igandearen teologia ematen da, eta ospakizunaren alderdi nagusiak zehazten –«igandearen ezaugarriak» deitzen ditugunak, alegia, apostoluen garaietatik bizirik daudenak–. Igandearen ospakizun egoki batetik sortzen diren eskakizunak azaltzen ditugu laugarren zatian, mundu zuzenago eta gizaerakoagoa eraikitzen laguntzeko. Eta, azkenik, bosgarren zatian, pastoral argibide batzuk ematen dira; berauen bidez, igandearen balioak berreskuratze bidean aurrera egiten lagundu nahi litzateke, gaur egungo egoera historiko honetan bereziki beharrezkoak ditugun balioak.

¹ Joan Paulo II.a, *XXV annus* Apostolu Gutuna, 6. z.

I.- IGANDEA, GAUR

4. Bizitza egokitu zaigun orduak hau du ezaugarri: aldaketa sakonak gizartean ikustea. Teknika berriek, eta oso era berezian gizarteko komunikabideek, aukeran jartzen dituzte, eta askotan ezartzen ere bai, zorabiozko aldakuntzak, pertsonen eta taldeen jokamolde eta ohituretan. Garai batean mendeak behar izaten ziren, gure egunotan ematen diren baino axalagoko eraldatzeak gerta zitezten. Gaur egun, ordea, giza gertakuntzen «planetizazioa» goaz, eta hainbat soziologok «mundu osoko auzunea» deiturikoa sortzen ari da.

Gauzak horrela daude; eta balio eta agintzarietan indar jakina duen egokiera gisa eskaintzen zaigu guri egoera hau. Baina, aldi berean, arrisku bat ere badu berekin, aintzat hartu beharrekoa, bi zentzuko ondorioak dituen. Izan ere, ongirako nahiz gaizkirako balio duen gertakari baten aurrean aurkitzen gara; eta gertakari honek badu bere eragina, eliz bizitzan eta gizarteko bizikidetzaren mamiduran bertan.

Aldaketa horietako batzuetaz zuek oharturik egotea nahi genuke, eta beroriek aldeko edo kontrako eragina duten ikustea, igandearen ospakizunean. Badakigu, kristau festaren ospakizuna, bere molde jakinetan, baldintzaturik dagoela kultur ingurunez, eta jai hori bizi duten gizon-emakumeen jokabide eta sentipenez. Gehiago oraindik, igandea elkartean ospatzea gizarteko bizikidetzaren eskakizunei egokitu behar zaie garai bakoitzean.

Pozik onartzen dugu garapen historikoa. Pozbide gertatzen zaizkigu beronen argitasunak; eta ahaleginduko gara beronen iluntasunak argitzen. Gure gogoeta honek, gertakari jakingarriak ikustetik sortua denez, ez du kondenaio bat izan nahi; baizik eta kontuan hartu nahi ditu gertakari horiek, igandearen kristau ospakizuna hobeto bizi dezagun.

Erljioarekiko praktika, kultur eskaintza eta astialdia

5. Kultur eskaintza nahiko zabaldua dago gizarte maila guztietara. Jakintza-aren zabalkundea gizarte maila guztietan gertatzeak, gehiengo bati egokiera ematen dio, bere nortasuna aberats dezan. Astialdiaz behar bezala baliatzea, hainbat atsedeen-modu edukiz, eta hainbat bide ere bai letrak eta artelartza lantzeko, guzti hau geure egunotako dohain berezi eta baikorretako bat dugu.

Jendeen heziera osoa hobetzen denean, honek bere eragina du kristau askoren fede-aitormen argiagan, eta itxaropenaren arrazoibidea emateko gaitasunean. Kultur garapenak kristau askori lagundu dio, igandea ohartuago eta gehiago parte hartuz bizitzen. Laikoen zenbait zerbitzu eta ministeritzak erraztu egiten dute, eliztarrek protagonismo berezia eduki dezaten igandeko batzarrean, bai Jainkoaren Hitzaren hitz egiteko, bai gure Jauna banatzeko eta elkarteko kantuek arduratzeko. Gaur hain bakanak ez diren parroketan, sekular taldea bere apaizarekin biltzen da homilia prestatzeko, bizitzak planteatzen dizkieten arazoak Jainkoaren Hitzaren argira aztertu nahirik.

Eskuarki, gero eta eliztar gehiago dira, igandeko Eukaristian asmo honekin parte hartzen dutenak: eguneroko bizitza Eukaristian osatu nahiz; jadanik ez dute aski, igandetan Meza entzuteko aginduarekin. Egiaz, kristau askorentzat esanahi handiko unea gertatzen da, beren famili eta gizarte bizitzarako hain irrikatua eta prestatua den igandeko eukaristi batzarra, eta erabakiorra ere bada esan dezakegu. Batzar honetan, argi berria aurkitzen dute eta bereganatzen, egunerokotasunean bizitzeko; indartu egiten dute espiritua; eta ahaleginak egiten dituzte, beren jokabideak, Jaunaren eguna» dela eta, Elizan aitortzen eta ospatzen den federekin egokitzen.

6. Hala ere, bizi-eremu berri hauek ekartzen dituzte nahiko arazo eta zailtasun. Egia da, bai, kultur eskaintza handiago batek gizarte aurrerapen sendoa dakarrela, alderdi desberdinetatik begiratuta. Bizitzak gaur astialdi ederra dakar, eta era askotako eskaintzak egiten ditu, entretenigarri diren hainbat gauzarekin bete ahal izateko. Baina aukera handiago hauek askorentzat tentaldi bihurtu dira eta gainditu beharreko arrisku, igandea gizalege bete-betean ospatu ahal izateko.

Egunotako lorpen sozio-kultural hauek loturik daude, batez ere, erlijioarekiko praktikaren beherakada handi batekin. Ez dira gutxi Jainkoarekin eta eliz elkartearekin duten zita ahazten dutenak, edota baztertzen, arreta galduta dabiltzalarik bidaia, ikuskari, festa, lehiaketa, jolas, bilgura eta aukeran ematen zaizkien beste hainbat gauzarekin. Asko dira gure arreta eskatzen duten gauzak, egunotako mundu nabar eta nahasian.

Behin eta berriro datoz astialdiaz ondo baliatzeko ihesketa-eskaintzak –batez ere oporretan eta asteburuetan–: bidaien programak, antolaturiko atsedena, landetara irteerak, mendiko txangoak. Hirietako zepoari ihes egin nahiz, asko dira barruko barealdia bilatzen dutenak, edota erabateko osasuna eta kontenplazioko gaitasunaren atsedena. Garai egokia da norberaren eta etxekoen «hobby»-etarako. Guzti hau errespetagarri eta ongarri da, baina igandeko festaren elkarte ospakuntza ukitzen du, igandek konkretuki giro bare eta anaikorra eskatzen duenez; bilaketaren eta elkarren artean banaturiko itxaropenaren giroa.

Horregatik, kristauak ongi uztartzen ez baditu, aukera horiek guztiak erabiltzea eta bere fede-hautapena, edota bere astialdiaren eta interesen banaketa lehentasun-ordena egoki baten fruitu ez bada, orduan ahuldu liteke igandeko ospakizuna, edo hiltzera ere etor liteke norberaren bizikizun pertsonalean.

Nekazari giroko gizartetik industri girokora

7. Hamarkada gutxitan igaro gara erabat nekazari zen kultura batetik, gaurko industri eta zerbitzuko gizarte bati egokiago lotzen zaion beste batera. Honelako gizarte batean dihardugu orain herritar gehienek.

Mendeetan zehar, nekazari ingurunean bizi izan dira gizon eta emakumeak, tradizioaren arabera moldatuak, nahiko finkoa zen balio-mailaketa bati atxikiak. Harreman-modu horrek suztatzen zituen hainbat portaera hiribilduetako giroan ere. Baina azkenaldi honetan, geu gara lekuko, nola gizarte eta kul-

tur mailan aldaketa sakon bat izan den, eta nola aldaketa horrek lehenagoko balio-sistema errotik aldatu duen. Kultura berri hau ezarri eta zabaldu zaigu, eta nekazari munduko bizitza ere kultura berri honek astindu du, neurri eder batean.

Gutxitu egin da soroko lan gogorraren azpian bizitzera beharturik bizi zirenen kopurua, nahiz eta mingarri den ikustea, nola herri mordoska bat pobreturik geratzen ari den, ez biztanlerik ez bizibiderik, ez duelako. Nekazari bizigune txikiei eskaintzen zaien pastoral zerbitzua ere gero eta mugatuago eta zailagoa da, horrelako bizigunetan apaizak eskuarki ez direlako bizitzen, edota apaiz eskasiak berekin dakarrelako, apaizak hiriburuetan eta biztanle gehienak dituzten hirietan biltzea.

Laikoen ministeritza eta zerbitzu desberdinak ezartzen ari direlako, nahiz eta apaiz gutxiago izan, on litzateke Elizak bere eginkizun pastorala betetzen jarraitzea, ardurakide izanez eta eginkortasunez bete ere, hirietan eta parrokia handietan. On litzateke, baita ere, gizarteko zatirik handiena baserriko lanen morrontzapetik askatu ahal izatea, hauek jaiegunetan ere ahalegin jarraitu bat eskatzen duten neurrian.

Hala ere, nekazari jendea hiriko biziguneetara aldatua izanak –hau bereziki inmigratioko gertakarian nabarmentzen da–, ez du ongi gairitu, gehiengutan behintzat, kultur mailan egokitu ezinaren arriskua. Lurretik deserrotzeak berekin eraman du, eredentziaz jasotako zenbait ohituren altxorra eta herri tradizioaren ingurugiroa ere, nahiz eta giro hau izan, zenbait giza bertute eta hainbat erlijio ekintza lantzerantz bultzatzen eta laguntzen ziena. Landetatik joandako askok galdu egin dute erlijioarekiko praktika eta sintonia, berek beren bidea egin beharra zeukatenez, eta ez zailtasunik gabe, hiri-gizarteko esparruan.

Erljioarekiko praktika hiribarruetan gutxitu izana alderdi kezkarriak dituen arazoa da. Eta planteamendu honi ez zaio arrotza igandeko Eukaristia ospatzearen gaia. Baina ez dugu ahaztu behar ere, gertatuak gertatu, hor daudela herri txikiak; eta hor daudela herriotako jendeak ere, gehiengutan zahartuak. Hauetara itzultzen dira asko eta asko, aldi-aldi, eta astero ere bai, ekonomi, kultur eta gizarte hobekuntzen bila herritik atera zirenak. Itzulian datozen hauek ere etengabeko desafio bat dira lekuko gure Elizentzat.

Norbanakoa eta masifikazioa herri eta hirietan

8. Giza duintasunaren osagai eta eskakizun dira, pertsonok elkar ezagutzea eta gizartearekiko menpetasuna, elkarte kontzientzia eta nor bere burua osabetetzeko autonomia, laguntasunezko harremanak eta auzoen arteko hurbiltasun beroa, baita pentsatzeko askatasuna eta aukera bat baino gehiago edukitzea ere... Inori ez zaigu erraza gertatzen hori dena ongi bateratzea guk amesten dugunarekin, guk eskatzen dugunarekin, eta eskubidez zor zaigunarekin, garen baino garapen beteagoa lortu ahal izateko.

Herrietan, nahiz eta hauek oso txikiak ez izan, errazagoa da elkar ezagutzea, eta elkarte horretako kide dela konturatzea. Horrek ez du esan nahi, ordea,

erosoa eta zoriontsua denik bizikidetza. Beren arteko desberdintasunak liskartzen direnean, zatiketak eta istiluak sortzen dira.

Hiri handietako masifikazioak, era askotako zerbitzuak dituenek, elkarrengandik urruntzea suztatzen du, eta elkar ez ezagutzea. Arrisku bat ere badu: bertako jendeek uste izatea, zerrenda luze bateko zenbaki baizik ez direla, estatistiken datu anonimo, produkzio munduaren eragile soil, eta salerosketako eskaintza erraldoien harrapakin.

Herrietan bizitzeak edota hirietan bizitzeak, nahiz eta berez zerikusirik ez eduki kristau fedea aitortu eta ospatzekoan, eragin garbia du norbanakoetan, familietan eta auzoko elkarteetan; eta, konkretuki, Eliza osatzen eta igandeko batzarrean parte hartzen duten pertsona eta taldeetan.

Herrietan, dorreko kanpaiaren deia entzutean, kristau elkarteak badaki eukaristi batzarrera hots egiten diotela igandea ospatzera. Ez horrela hiri handietan: ia ez da kanpai hotsik entzuten; eta entzuten direnek ere herrimin erromantikoaren irudia dakarte, eta badira gehienetan beste hots batzuk, kanpai hots horiek isiltzen dituztenak.

Bestalde, nola herrian hala hirian, jendartean galduriko pertsonak eragozpen handiagoei aurre egin behar die, arnasa eta eraginik jasoko badu fede berean hurbil dituen haiengandik, eta fede hori elkarteetan bizitzen dutenengandik. Eukaristian parte hartuz jarraitzeko arrazoiak, behin baino gehiagotan, norberak bilatu behar ditu, eta askotan denen joerari aurre eginez.

Sekularizazioaren gertakuntza

9. Orain dela gutxi arte, gure arteko gizarte bizitza era askotako erlijio aipamenen barruan sustraiturik aurkitzen zen. Egutegiaren argigarri, atsotitzak eta esaera zaharrak erabiltzen ziren, herri erlijiotasunetik hartuak: «Kandelarioz eguzki, negua ez dago urruti; Kandelarioz elurra, joan da neguaren beldurra»; «San Yurki, artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz»; «Ama Birjina urriko, sekula ez al haiz etorriko»..., adibide batzuk besterik ez dira, gizarte sakratua deitu litekeen baten «oihartzun» gisa.

Sekularizazio haizeek apurtu dituzte sakratu antzeko lotura horiek. Bizitza zibila loturarik gabe geratu da askotan erlijiozko bizikizun eta ohituretatik, erabateko emantzipazioa omen denaren izenean. Sekularizazioa gure garaiotako gertakizun tipikoa da. Lehen erlijioaren argi-ilunei, eta, gure artean, Elizarenei, lotuegia zegoen mundu profanoa, bidezkoa den bere adin heldurantz doa.

Ez zen ongarrri, edonon sartzen zen sakratuaren munduak jende askoren jokamoldeak baldintzatzea, bortxatzeraino baldintzatu ere. Bidezkoa den askatasuna murriztua gera zitekeen, eta, zenbaitetan, ezereztua ere bai herri gauzetarako eta erlijio gauzetarako. Atseginez onartzen dugu, autonomoak direla munduko gauzak, badutela eskubide beren jatorrizko aurpegia izan eta erakusteko, eta beren legeen arabera izan behar dutela zuzenduak.

Oraindik orain arte, igandea erlijio egun nagusia zen, eta, aldi berean, jaiegun. Bi alderdi hauek bana-ezinak agertzen ziren, orri bat-beraren bi alde bailiran. Igandeko festa oso goiz hasten zen egunsentiko kantuez, eta arratsaldean luzapen hartzen zuen dantza eta beste jolasetan. Ez zen iganderik Eukaristiarik gabe, eta Meza zen egunaren ardatza.

Gaur egun, erlijio mundua eta profano mundua bakoitza bere adar-biran kiribiltzen dira. Baina horrek ez luke erlijio mundua pribatuaren esparrura mugatzeraino eramane behar. «Sakratuaren» eta «profanoaren» arteko bereizkuntza gehiegi azpimarratua dago, elkarren aurka jartzeraino; eta bereizkuntza horrek, zenbait alditan, eragin kaxkarra du herri programazioetan, eta bataiatutako askoren jokabideetan ere; eta, beraz, igandearen ospakuntzan.

Ez dugu estatistiketan sartu nahi. Aski dugu begiak zabaldu eta gauzak daudenean ikustearekin, jabetzeko, nolako jaitsiera nabari den igandearen ospakizunean.

Garai batean, ageriko presioa zegoen gizartean, eta bulko honek arrastaka eramane zitzakeen benetako uste pertsonalik sendotu ez zutenak. Ingurugiro askotan, Eukaristia gizarteko jaiaren osagai gertatzen zen, igandea bizitzea eta Mezarekin bizitzea gauza bera izateraino.

Gaur, ordea, bidezko da aitortzea, eskuarki behintzat, kristauek Eukaristian parte hartzea ohartuago egiten dutela, eta erantzuki handiagoz. Elizak berak ere, liturgi erakuntza berriari esker, hobetu egin du fededunen esku hartzea igandeko ospakizunean; doktrinazko eduki aberatsagoak dituzten elizkizunak eratu eta egiten ditu; duintasun handiagoz ematen du Jainkoaren Hitzaren jannaria; eta kristauen festan parte hartzen dutenei Erreinuaren lekuko izan daitezela hots egiten die.

Hala eta guztiz ere, kristau askorentzat, Eukaristia oraindik ere eginkizun bat baizik ez da, eta ahaleginduko dira eginkizun hori lekurik erosoenean jartzen, atsedenean eta aisiaren programa barruan. Agindutako gauzen esparrura zokoratzen da Eukaristia, agindua irizpide moralen arabera «betetzen delarik», bizitzarekiko ikuspegi gehiagorik gabe. Gauzak horrela direnez, behar-beharrezkoa da ideia hau gaingitzea: igandearen kristau ospakizuna «Elizak ezarritako eginkizuna» baizik ez dela, alegia. Zeregin pastoralean jarraitu beharra daukagu, kristau guztiei lagunduz Eukaristian ekinaren ekinez parte har dezaten, gainerako senideetara zabalik egonez, eta Jesukristogan eskainitako salbamen dohaina onartuz eta eskertuz.

Gizarte aniztasuna eta eliz elkartea

10. Elkarte askeak berarizko joera du anitza izatera. Molde bakarreko eta erabat berdina den gizarteak aditzera ematen du, badaudela, indar bortxatzaileak, berariaz anitzak diren indar soziokulturalen agerpena galarazten dutenak.

Aniztasuna nabarmentzen da, bizitzaren eta honen esanahiaren ulerkuntzari dagozkion pentsamolde desberdinetan, eta bakoitzaren bizitzari eta gizartekoari buruzko ideologi ulerkuntzari dagozkion pentsamolde desberdinetan.

Erljio-hautapenen esparrua ere berea du aniztasunak. Gure herrian kultur tradizio bat baino gehiago dago, eta hori bereziki elebitasunean nabaritzen da. Be-launaldi desberdinek irizpide eta balio maila desberdinak sartzen dituzte fami-liako esparruan. Ekonomi interesek, gehienetan aurka dauden helburu eta tal-deei ematen diete bide, bereziki guk orain bizi dugunaren erako krisialdietan. Aukera politikoez aldeak sortzen dituzte, eta, zenbait alditan, alde hauek, denen onerako den laguntza leial batek onar dezakeena baino urrutiago doaz.

Baina aniztasuna ez da gizarte zibilari dagokion gertakaria bakarrik. Elizaren beraren barruan ere ematen da, sustraiz eliztiarrak diren arrazoien eraginez. Teologi joera desberdinek kristau bizitza ulertzeko era desberdinei ematen diete bide, baita kristau bizitzak munduko arazoekin dituen harremanak ulertzeko, eta espiritualitatea bera ulertzeko ere, Elizak ez dezake, bere baitatik, mintza-tzeko askatasuna ezabatu, ezta taldeak eta elkarteak sortzeko askatasuna ere. Elizan ere aniztasuna sartzen da, gizarteko aniztasunaren islada bezala sartu ere; aniztasun honek bereizi egiten ditu kristauak eta, askotan, elkarrengandik aldentuarazi ere bai, nahiz eta kristauak fede bera aitortu, eta kristau maitasu-naren lotura eta sentipenekin bat eginiko kristau elkarte berean kide izatera dei-tuak egon.

Eukaristia ospatzea da kristau igandearen ardatza. Eta ospakizun honek badu zerikusia, aipatu besterik egin ez ditugun errealitateekin, berauek era as-kotako eragin praktikoak dituztenez eta, askotan, astunak ere bai. Aniztasunak desberdintasuna dakar eta, alderdi honetatik begiratuta, giza aberastasunaren adierazgarri da, nola gizarte bizitzan, hala kristau elkartean bertan. Baina aniz-tasunak zatiketara eta liskarretara darama, tenkak eta istiluak sortzen ditu; eta zaila da ondorio hauek onartzea, gizarte eta eliz ikuspegi zabal batetik. Eukaristi ospakuntzak, lehenengo eta behin, kristau elkartearen batasun ispilu izan behar du; baina zauriturik gera daiteke, elkarte horretako zatiketak direla medio.

Ez da gauza erraza, fedearen lotura bateratzailea eta kristau maitasuna ideologi hautapenen gaineratik jartzea, sozio-ekonomi eta kultur desberdintasun-en gaineratik, alegia, eta buruz buru dauden interesen gaineratik. Zailtasunak areagotu egiten dira, desberdintasunak eta egon daitezkeen istiluak, zuzentasu-naren edo zuzenkontraren ikuspegitik irakurtzen eta ulertzen direnean, ikuspegi honek auzipean jar dezakeenez elkarteak behin eta berriro hots egin dezakeen egiazkotasuna. Elkarri barkatzearen alderdia ahuldu egin ohi da ustezko nahiz egiazko arrazoi objektiboengatik, eta sutsu bizitutako sentipenengatik.

Errealitate honen aurrean ez dago begiak ixterik, gure kristau bizitzaren egiazkotasunari eta, beraz, gure ospakizunen zintzotasunari eginiko desafio ba-ten antzera aurkezten zaigunez.

Kristau elkarteak eta, honekin batera, igandeko ospakizunak, badute zeri-kusirik gizarte eremuko maila eta barrutiek. Pertsonen arteko komunikazio eskasiak, taldeen artean ere komunikaziorik ez egotea ekar dezake, kontuan iza-nik, pertsonak talde barruan babestu ohi direla, eta beren esparruak sortzen dituzte gizarteko bizikidetzan. Eliz elkarte edo talde txikien gertakariak badu zerikusirik gizarte eta kultur egoera honekin. Batzarra, berez, denentzat zabalik dago eta denei egiten zaie deia; baina batzarrerako deiaren dinamika moteldua egon daiteke, eta aldatua ere bai beste deiak direla medio. Horrelako beste dei

hauek, nahiz eta bidezkoak izan, ez dezakete eragotzi, Eliza, aniztasunera zabalik dagoen, eta aniztasunaren agertaldi desberdinak onartzen dituen elkarte bezala gara dadin.

Lan jarraituaren ikuspegi ilunak

11. Gizarte modernoa ahalik eta emankortasun handiena sortu asmoz antolatuturik dago. Erabilitako teknologiaren ustiaketarik bikainena eskatzen du. Eta eskatu ezezik, egin ere bihozgabe eta modu basatian egiten du, sendabide zaila duten zauri sakonak edonon sortuz. Emankortasun borrokako ingurugiro honetan sortua da, eta zoritxarrez gauzatua, etengabeko lantegiaren ideia, behar den lan-txanda guztiekin.

Berdin dio eguna edo gaua izan; eguna lanalditan eta atsedendalditan banatzea da arazo guztia, kontuan hartu gabe, behin baino gehiagotan, izaera eta festa giro berezia dutela, igandek eta lantegiko egutegi ofizialetan onartutako jaiek. Nahi dena lortzeko, egunen sailkapena bakarrik aintzat hartzen da: zein diren, alegia, lanegunak eta zein ez; zein diren berreskuratzeakoak eta zein ez. Eta zailtasunik sortuz gero, kasu guztietan konponbide bakarra izaten da: diruz ordaintzea, kopuru osagarriak emanez.

Ez dugu zertan aztertzen ari beharrik, nolako eragina duen igandeko festan, eta festa honen kristau ospakuntzan, etengabeko lan-sistema hau edonon jarri izanak.

Horregatik, Eliza ez da, inoiz ere, egutegia etengabeko lan-orduz sistematzearen alde egon; izan ere, badirudi horrelako egutegietan ekonomi gogoetek bakarrik dutela eragina. Gauzak honela datozenean, nola zaindu igandearen esanahia, atsedean eta festa eguna den aldetik, eta, bereziki, eukaristi batzarraren eguna den aldetik?

Nahiz eta aipatu dugun produkzio-lehiaren irrikak igandearen festa-eiteari zor zaion sintonia ez nahastekatu, beldur gara festa giroa ez ote den kutsaturik geratuko aisia hutsera, atsedean fisikora, eta lantegiko erritmo gogorrari ihes egite hutsera. Gizaki orok beharrezko du, asteroko atsedendaldia eta jaikizuna, gainerako egunetako gatazkei kontrapuntua ezartzeko. Baina, askoz ere gehiago nahi genuke kristauok igandearentzat.

Beste zenbait galdera

12. Era askotako gogoetak eginez jarrai genezake, jokabideei buruz, eskaintzei buruz, eta igandea ospatzeko orduan gaur egun aurkitzen dugun beste zenbait arazori buruz. Bestalde, egoerak oso bestelakoak izan ohi dira, elkarteen arabera eta pertsonen nahiz taldeen «izaeraren» arabera. Ez da gure asmoa, gure artean igandeak duen irudia xeheki ematea. Nahi duguna da, zenbait argibide eskaintzea.

Asko jaitsi denez igandearen praktika, apaizok ere ez ote gara zuzenean edo zeharka, horren arduradun? Egoki koordinatzen ote du liturgian buru egi-

ten duenak, ospakizunaren alderdi guztien prestakuntza? Ordutegia kargatuegia izateak, ikustaldia unetxo batekoa eta behartuta bezala egina izateak –berehala beste eginkizun batzuez arduratu behar duelako–, guzti honek ez ote du bide ematen, apaiza «funtzionarien» ohikerian eror dadin edo, gutxienez, ematen den itxura hori izan dadin?

Beste alderdi batetik begiratuta, ez al dira aukeratu, zenbait unetan behintzat, beste pastoral metodo batzuk talde-kontzientzian sakontzeko, era askotako elkarte txikietan ematen diren arazo jakinak aztertzeko, eta elkarte hauetan Jesukristoganako fedea indartzeko? Zergatik ez da eduki beti, denen aldetik eduki ere, parrokiari biltzen den eliz elkarte nagusiaren Eukaristia, ikuspegi guztien ardatz bezala?

Bai ote dago zertan aipaturik, igandeko Eukaristia hainbeste zipriztintzen duen beste alderdi hau? Badira, izan ere, ekitaldiak, egitasmoak, dokumentuak, argibideak, komunikapenak... eta horiek erraztu egiten ote dute kristau maitasunaren elkartasunezko ospakizuna; ez ote dute zailtzen gure fedearen funtsezko muinaren bizikizuna?

Inortxo ere salatu gabe, denei ohar bat egin nahi diegu eta, bereziki orain, Eukaristian buru izateko grazia eta egitekoa dutenei. Nola lagundu hauei, Eukaristia fedearen gozamenez ospa dezaten, uste osoan egonez berak direla kristau bizitzaren funtsezko festaren suspertzaile nagusi? Nola etengabe eraberritu buru direnak, kristau guztiak suspertu eta adoretu ahal izateko, «Jaunaren eguneko» ospakizunean ekinez parte hartzera?

Esandakoarekin nahikoa dela uste dugu, denok uler dezagun, kristau eta gizarte bizitza asko ukitzen duen desafio baten aurrean aurkitzen garela. Une garrantzitsua da hau. Ugari dira zelatan dauzkagun arriskuak. Baina handiak dira, baita ere, etorkizuneko ahalbideak, igandearen kristau ospakizuna hobeto burutzeko. Gure esku dago, neurri handi batean, hori egia gerta dadin.

II.- KRISTAUON IGANDEAREN BALIOAK ETA ABERASTASUNA

13. Kristoren misterioa ospatu ohi dugu kristauok igandez; horregatik, neurri-gabeko aberastasunak dakarzkigu igandeak. Bera ere misterioa da berez. Baina sinesmen begiz baizik ezin dira ikusi, igandeak gaurkotzen eta ematen dituen espirituzko egiak. Horregatik, kristauon igandea eta sinestun ez direnen igandea erabat desberdinak dira.

Pazko esperientziatik abiatu eta astero izandako ospaketari esker, igandeari buruzko irakaspen oparoa landuz joan da kristau tradizioa mendeetan barna. Kristau herriak eskubidea du tradizio horren berri izateko, famili ondarena baita. Jakin beza kristauak, Meza entzun beharreko eguna baino askoz gehiago dela igandea. Horregatik, leial eta osorik, ezertan kimatu gabe, adierazi nahi dizuegu, geure fede gordailuak kristauon igandeari buruz eskaintzen digun irakaspen bikaina eta aberatsa.

Kristoren misterioan sartzen da, igandez ospatu ohi den pazko misterioa; beraren ardatza da, izan ere. Geroko bizitzan burutzekoa den Kristoren misterio hori Elizaren misterioan eta kristauaren bizitzan betetzen ari da. Igandea, beraz, Pazkoaren oroigarria da, geroko aintzaren iragarpena eta aurrerapena; Eliza zer den agertzen du igandeak, izate hori betearazten du, eta, orobat, Kristorengan izaki berri den kristauaren izatea egia bihurtzen.

Igandea, piztueraren eguna, asteroko Pazkoa

- ***Piztueraren eguna***

14. Jaunaren piztuera miresgarriari estuki lotua sortu zen igandea, piztuera, hain zuzen, «larunbat biharamunean» (Mt 28,1)² gertatu baitzen. Igandearen «sorrera Kristoren piztuera eguna da» (*Sacrosanctum Concilium*, 106 z.).

Kristo piztua, igandean, piztu zen egun berean³, bere ikasleei agertu izanak eta Jauna beste egunetan agertu zenik ez aipatzeak badu, noski, zerikusirik zortzi egunez behin, igandez, biltzearekin; Apostoluek hasia da ohitura hori, Berpiztuaren oroimenez. Jesusen lehen ikasle haiek izan zuten bizipen berezi hark betiko ukiturik utzi zuen kristauon igandea. Bizipen haren oroimena jaso duten kontaerak, kristauon igandeari buruzko katekesia ditugu.

Igandea, beste ezer baino lehen, piztueraren eguna da, Jaunaren piztuaren asteroko oroimena.

² Ikus Lk 24,1; Jn 20,1.

³ Ikus Mt 28,9-10; Mk 16,9-13; Lk 24,13-35; Jn 20,14-23; eta handik zortzi egunetara: Jn 20,26-29.

- **Jaunaren eguna**

15. Horregatik, hasiera-hasieratik⁴, igandeari «Jaunaren eguna» esan ohi zaio. Egun horretan, hilen artetik piztuz, Jaun eta Mesias egin zuen Jainkoak, gizonek gurutziltzatu zuten Jesus hau» (Ap Eg 2,36). Hala aitortzen eta hots egiten du Elizak, Jesusek heriotza garaitu izana goraiatuz.

Horrexegatik, antzinako kristauek, jentilek bezala, «eguzkiaren eguna» ere esan zioten igandeari inolako kezkarik gabe, baina kristau erara ulertuz, San Jeronimok dioen bezala: «Jentilek eguzkiaren eguna deitu ohi diote eta guk atseginez onartzen dugu izen hori, egun horretan piztu baitzen Zuzentasun Eguzkia»⁵.

- **Berpiztua geure artean dugu**

16. Kristo piztuak berak sortarazia da igandea. Bera da igandearen, hau da: «gu pozteko eta alaitzeko Jaunak egin zuen egunaren» egilea (Sal 118 [117], 24). Jaunak bere maiteei eskaintzen dien eguna da. Guk Jaunari eskaintzen diogun eguna izan baino lehen, Berak bere maitasuna dohain emandako eguna dugu igandea. Ez da aski kristauok Jaunari eskaintzen diogun eguna dela, eta otoitz eginez eta Eukaristia ospatuz santu egiten dugula esatea. Hori izan baino lehen, Jaunak bere herria ikustaldia eginez aberasteko eguna da, Jaunak bere seme-alabei dohain eskaintzen eta ematen dien eguna.

Kristo piztua igandez bere eliz elkartearen erdian gertatzen da zenbait ezaugarritan: kristau senideen batzarrean, apaizarengan, Hitzean, Eukaristian, jai egitean... Elizak ezagutu, sinetsi, onartu eta ospatu egiten du, Jauna bere erdian izate hori, eta Jaunak bere piztuerakoan hasi zuen bizi berriarekin bat egiten du. Elkar aurkitze eta bat egite horrek pozkariora eta alaitasuna dakarzkigu⁶, eta itxaropena ernarazten digu Jaunarengan sinesten dugun guztioi. Igandek Kristo du ardatz, eta Jaun piztua tartean izate horren inguruan dago antolatua.

- **Pazkoaren asteroko sakramentu**

17. Jaunaren piztuera gogoratu eta ospatzean, «pazko misterioa ospatzen du Elizak zortzian behin» (*Sacrosanctum Concilium*, 106. z.), nekaldia eta heriotza ezin baitira piztueratik bereizi, eta misterio bakarra egiten dute beronekin. Berretarren artean aurkezten den Kristo piztua saihesta irekia duelarik agertzen da⁷, bere burua gurutzean emateak bere horretan dirauela erakutsiz. Igandea, beraz, Pazkoaren asteroko sakramentua da, Elizak astero ospatu ohi duen Pazkoa, pazko askakuntzaren jaia.

Horrela, kristautasunaren muina den gertakaria zortzian behin ospatu ohi da jai giroan. Salbamen historiaren ardatz eta gailur den gertakaria igandeko

⁴ Ikus Apk 1,10; *Didache* 14,1.

⁵ Beste testu batean hau esaten da: «Salbatzailea, infernuko ilunbeak piztueraren argiz desegin ondoren, eguzkia bezain distiratsu jaiki zeneko eguna da» (Turingo San Maximo).

⁶ Ikus Jn 20,20.

⁷ Ikus Jn 20,19-22.

ospakuntzaren muin eta mami bihurtzen da. Salbamen historia osoa –lehengoa, oraingoa eta gerokoa– bateratzen duen gertakaria da pazko misterioa; beronek eraman zuen bere betera erosten egintza, eta beronek zigilatu ere itun berri eta betikoa; pazko misterioan sortu zen «Eliza osoa den sakramentu miresgarria» (*Sacrosanctum Concilium*, 5. z.), eta pazko misterioari dario ur bizia, hau da, Espiritua⁸; pazko misterioan jarri da agerian gizakiaren eta beronen azken helburuaren misterioa.

Pazko misterioa igandero-igandero ospatuz, Jainkoak Kristorengan salbatu duen herria dela gogoratzen eta adierazten du Elizak. Eta sinesten ez dutenentzat ere, Jainkoak gizadi osoarentzat duen Berri Onaren oihartzuna da iganderoko ospakuntza.

Igandea, geroko bizitzaren irudi

• *Igandearen alderdi eskatologikoa*

18. Kristauon egia guztiak Jaunaren azken etorrerari begira daude eta historiaren burutzeari begira egote horrek ukituak⁹. Orobat igandearen ospakuntza ere, azken aldiei buruzko arreta horrek ukitua dago, noski.

Igandea ospatzean, geroko Erreinua oroitarazten eta irudikatzen duten ezaugarriak egin ohi ditu kristau elkarteak, eta joan ere, geroko Erreinu horretarantz doa. Senideak biltzea, jai eta garaipen kantuak abestea, eukaristi otordua, senitarteko otordua, atsedean hartzea... geroan, aldien buruan, itxaro dugun egoeraren irudi dira, hots, zatiketarik gabeko senidearte, bukaerarik gabeko jai, aintzaren argi, betiereko otordu eta atsedeenaren irudi.

Horrela, igande osoa mundu berriaren seinale gertatzen da, aintzazko bizitzaren irudi, betikotasunaren ezaugarri.

Eliz gurasoek «zortzigarren eguna» deitu zioten igandeari, hau da, zazpi egunetako astea gainditzen duen eguna. Eta horrek adierazi nahi du, igandea gizon-emakumeon aldia baino harantzagokoak eta betierekoak diren errealitateen irudi dela¹⁰.

• *Bukaerako Pazkoaren aurreratzea*

19. Kristauon igandea osotzen duten seinale profetiko horiek, sakramentu izaera dutenez, betiko bizitza oroitarazi eta irudikatzeaz gainera, Erreinuak ondusunak dagoeneko eskuratu eta, nolabait, orain gertatu ahal izatea ematen dute. Igandea ospatuz eta ospatzean, «Jerusalen hiri santuan ospatzen den zerutar liturgia aurrez gozatu eta berorretan esku hartzen dugu; joan ere, hiri santu horretarantz goaz erromes» (*Sacrosanctum Concilium*, 8. z.). Betikotasunaren

⁸ Ikus Jn 7,37-39.

⁹ Ikus *Lumen gentium*, 48-51. zz.

¹⁰ «Zortzigarren eguna oraingo aldiaren ondoren etorriko den egoeraren irudi da, bukaerarik gabeko eguna, arratsik, ondorengorik, etenik eta ilunabarrik izango ez duen beste munda» (San Basilio).

hasiera da jadanik igandea, datorren munduarekin bat egitea eta betiko bizitzaren dastaketa.

Kristauon igandeak, Pazkoaren oroigarri eta sakramentu denez, harremanetan jartzen du igandea ospatzen ari den elkarteak, pazko misterioarekin eta Kristo piztuarekin berarekin. Pazko misterioa azken aldietako gertakaria da, hots, itun berria betiko ezarriko den eta Jainkoaren Erreinua helduko den azken aldien hasiera. Kristo piztua bera da jadanik gizadi berria, geroa, aintza, Erreinua, «zeru berria eta lur berria» (Apk 21,7).

- ***Itxaropenaren eguna***

20. Hori dela eta, itxaropen oihua entzun behar da ozen igandea ospatzean. Igandea itxaropenaren eguna da. «Egun horretan eskerrak eman ohi dizkiote sinestunek Jainkoari, Jesukristoren piztueran itxaropen bizira sortarazi zituelako» (*Sacrosanctum Concilium*, 106. z.). Bere betiko Pazkorantz doa erromes Eliza «itxaropenaren sakramentuan» (San Agustin). Bizirik iraunarazi behar dio itxaropenari; horregatik du pozkarioz baieztan eta zortzian behin ospatzen. Elizak badaki, itxaropena ospatzen ez den tokian, berehala ahituko dela itxaropen hori. Astero-astero igandea ospatzeak zuzpertz egiten du itxaropen sua eta itxaropenak erne iraunarazten dio Elizari azken aldien zain.

- ***Itxaropena, baita munduarentzat ere***

21. Badirudi gure gizarteak ez duela bizitzaren azken zentzuaren galderarik egin nahi. Nahiago du berehalako asea eta atseginaren bila eginahalean ibili. Ebaki egin ditu itxaropenaren hegoak.

Gizarte honen erdian beren igandea ospatuz, Pedro apostoluaren eskaria betetzen dute kristauak: «Egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoibidea emateko, eskatzen dizueten guztiei» (1 Pe 3,15). Itxaropen hori alai eta bare hots egiteak suspergarri izan behar luke, bere bizitzaren ikuspegitik itxaropena desgertarazi duen munduarentzat.

Igandea, Elizaren eguna

- ***Elizaren ospakuntza***

22. Igandea ez du kristau bakoitzak bakarka ospatzen, kristau elkarteak baizik, tokian tokiko Elizak. «Ez da nork bere kasa egiten duen zerbait, batasun sakramentu den Elizaren ospakuntza baizik, hots, gotzainen zuzendaritzapean bildua eta eratua den herri santuaren ospakuntza. Horregatik, eliz gorputz osoaren egintza da, gorputz osoan du eragina eta gorputz osoa ematen du aditzera» (*Sacrosanctum Concilium*, 26. z.).

Igandez pazko misterioa gogoratu eta ospatzean, bera sortu zeneko gertakaria gogoratzen du eta ospatzen Elizak: «Gurutzean hila zegoen Kristoren saihetsetik sortu zen sakramentu mirengarria den Eliza osoa» (*Sacrosanctum Concilium*, 5. z.). Piztuera da Eliza sortarazi zuen gertakaria. Eliz batasuna pazko graziaren ondorio da.

Kristo piztuaren agerpenei buruzko kontaeretan –hauek baitira igandearen sorburu eta eredu– ikus daiteke, Berpiztuaren inguruan hasi zela biltzen eta Jainkoaren herri berri bihurtzen Eliza. Kontaera horiek erakusten digute, nolako indarra duen Pazkoak sinestunak deitzeko eta biltzeko. Halakoxe indarra du gaur egun ere, Pazkoaren oroigarri eraginkor den igandeak, Berpiztuarengan sinesten dutenak biltzeko.

- ***Igandeak egiten du Eliza***

23. Egia da Elizak egiten duela kristau igandea, baina hori bezain egia da, igandeak egiten duela Eliza. Igandea ospatuz eta ospatzeagatik, Eliza eraikitzen ari da, eta salbamen elkarte bihurtzen. Igandeak egiazko harremanetan jartzen du Eliza, bera sortarazi zuen gertakariarekin; pazko misterioa gogoratu eta ospatzeak, eta berarekin bat egiteak, bizirik irautea, birsortzea eta biziberritzea dakarkio Elizari. Izatea bera arrisku larrian jartzea izango litzateke Elizarentzat, bere jatorriarekin aldian-aldian harremanetan ez jartzea. Jaun piztuak, Berarekin astero biltzean, elikatu eta indartu egiten du Eliza, bere Hitzaren ogi opa-roaz eta bere Gorputz-Odolez.

Bere sorburura itzuliz, gero eta hobeki aurkitzen ditu Elizak bere izatearen ezaugarriak, eta argiago ikusten, Kristorengandik eta pazko misteriotik datorrela. Ospakizunean batzar-buru den eta «Kristo Buruaren izenean» diharduen gotzain edota apaizarengan esker onez ikusten du Elizak bere Jaunarengandik datozkiola salbamenaren ondasunak.

- ***Elizaren misterioa dastatu eta bizi***

24. Igandea ospatuz, beren Elizaren benetako aurpegia eta egiazko izatea ikus dezakete fededun eliztarrek. Une egokia da igandea, Eliza zer den ikusteko, «Elizaren misterioa dastatu eta bizitzeko» (Joan Paulo II.a) eta Elizarekin bat egiteko. Igandero Eukaristiara bilduz, Mezatara joanez, aditzera eman dezakegu denen aurrean, leialak garela Elizarekiko eta eliz elkarteko kideztzat dauzkagula geure buruak.

Norberak, kristau bakoitzak, izan ditzakeen arrazoiez gainera, elkarreak ere baditu, kristauari igandea ospatzera eragiten dioten arrazoiak. Bere Elizarentzat oso garrantzitsu eta esanguratsu den ospakuntzan parte hartu nahi izateak ere eragin behar dio. Tamalez, Mezatara datorren kristau askok maiz ez du gogoan, eliz elkartearen egintza dela bera egiten ari dena.

- ***Eliza munduaren aurrean***

25. Igandea ospatzeak agirian jartzen du Eliza kanpoko munduaren aurrean. Eliza «herrien erdian altxatutako seinalea, ezaugarria» dela agertzen da (*Sacro-sanctum Concilium*, 2. z.). Era berezian jartzen da igandez Eliza, munduaren aurrean agirian. Bere sinesmena ospatzeko, egun horretan egiten dituen zeinuek nabariarazi egiten diete eliztar ez direnei ere, hor dagoela eliz elkartea eta ikus dezaketela beraren aurpegia.

Kristauek igandea ospatzean, eliztar ez direnek ikus dezakete, nolako betekizun harrigarria duen Elizak: esan ezin halako egien sakramentu edo seinale izatea, hots, pazko gertakariaren eta denen erospenaren sakramentu, Jainkoarekiko batasunaren eta gizaki guztien arteko batasunaren seinale izatea eta, orobat, «Jainkoak bakarrik dakiela fededun hil diren guztiak»¹¹ egunen batean bilduko dituen zeruko Jerusalemaren seinale izatea. Garbi jakin behar genuke nolako kemen ebanjelizatzailea izan lezakeen, zortzian behin, jai giroan, egia horiek hots egiteak, hots egite hori egia horietan zeharo murgildua dagoen kristau herriak egina izanez gero.

Igandea, kristauaren eguna

26. «Jaunaren eguna» ezezik, «gizakiaren eguna» ere bada igandea. Jainkoari eskainitako aldartea ezezik, gizakiari eskainitakoa ere bada. Berezkoa du kristau izateak giza alderdia, gizakiarekiko arreta eta gizakia bere osotasunean ongi izatea kontuan hartzea. Igandea, beraz, gizakiaren onerako ere bada, giza askatasun eta duintasunaren zerbitzurako, bai bakarka harturik, bai elkarteko kide bezala harturik.

• *Kristauaren eguna*

27. Igandea «Jaunaren eguna da, piztueraren eguna, kristauon eguna, gure eguna» (San Jeronimo). Igandea kristauaren eguna da. Eta ospatu, Bataioaren bidez, Kristoren misterioan bete-betean sartu denak bakarrik ospa dezake igandea, bere erlijioso eta giza alderdiak bete-betean Kristoren misterioan txertatuak dituenak bakarrik. Beraren bizitza osotzen, bideratzen eta sendotzen duten baloreak bizitzen ditu kristauak, trinko eta gogotsu, egun horretan.

Hona hemen laburbildurik, igandea ospatzean kristauak bizi behar lukeen esperientzia erlijiosoaren neurria ematen diguten hiru alderdiak:

- Eliza osoarekin batera pazko misterioa ospatzean, kristauak bere Bataioa gogoratzen, berritzen eta sakontzen du, orduan hil eta piztu baitzen Kristorekin, eta pazko misterioarekin bat egina geratu zen betiko. Gertakari hartatik abiatzen da kristauaren bizitza, eta berezkoa du bizitza honek pazko argiaz argitua izatea. Eliza osoa bezala eta berarekin batera, bere sorburura itzultzen da kristaua igandero, bere jatorriarekin harremanetan jarritz behin eta berriro.
- Igandea ospatuz eta azken aldietara begiratzeko igandeak ematen duen indarrez, betiko den bizira irekia dagoela jabeagotu egiten da kristaua, Bataioak betiereko bizi hori isuri baitzion barne-muinetaraino. Ametsa egia bihurtua ikusten du, Gizaki berria den Kristo piztuaren baitan. Zeruko Jerusalemenera doan erromes dela ikusten du igandero kristauak, eta bataiatzean hiri santuko hiritar izendatu zutela hango erroldan. Itxaro duen etorkizun aintzatsua ikusten du urrutian, baina aurrez dastatzen duelarik. Eta horrek zerurako gogoia zuzperten dio, eta itxaropena berpizten.

¹¹ *Erromako Meza-liburua*, IV. Eukaristi otoitza.

- Igandez Elizaren eguna ospatzeko bere senideekin biltzean, Kristoren Gorputzeko atal dela ikusten du kristauak, bere Bataiokoan txertatu baitzuten Gorputz horretan. Igandea ospatzeak Elizaren misterioa bizitzen laguntzen dio, Elizarekin dituen loturak sendotzen dizkio, eta sakonago sartzen du Elizaren bizitzan eta egitekoan.

Horregatik, egun egokia da igandea, asteroko Pazkoa, Bataioaz oroitzeko eta beraren sakramentu indarra berritzeko. Horixe ematen du aditzera igandeko Meza nagusiaren hasieran, Larunbat Santuko Pazko Gaubeilan bezala, herria ur bedeinkatuz zirtatzeak.

- ***Kristauaren nortasuna***

28. Gure gizarte sekulartu honetan, beharrezkoa du kristauak, bere izate eta nortasuna ezagutarazteko tokia edota erreferentzia. Igandeko ospakuntzan, bere aurpegia aurkitzen du kristauak eta bere nortasunaren ezaugarriez jabetzen da, ospatzen dituen egiekin bat eginez. Igandearen esanahia bere izatean eta bizitzan gauzatuz, igandearekin bat eginiko gizakia dela ohartzen da, igandeko gizakia, San Agustinek zioen bezala.

Elizak ez du isilpean ospatzen igandea, denen begibistan baizik. Igandean kristauak egiten duten ospakuntzan parte hartuz, denen aurrean agertzen du kristauak kristau dela, Jesukristo piztuarengan sinesten duela, elizkide dela eta betiko bizitza itxaro duela. Horregatik, igandea ospatzea munduaren aurrean kristauak egiten duen testigantzarik indartsuenetakoa bilakatzen da, taldean egina baita, jai giroan egina eta behin eta berriro egina.

- ***Gizakiaren eguna***

29. Igandea, azkenik, «gizakiaren eguna» ere bada. Atsedena dakarkio igandek gizakiari, jai giroa, alaitasuna, elkarrekin ibili ahal izatea, kultura, artea, kirola, izadia gozatu ahal izatea... Igandea, beraz, gizakiaren zerbitzura dagoen eguna da, giza duintasuna, garapena, askatasuna, oreka fisiko eta psikikoa, nork bere burua eta besteekiko harremanak landu ahal izateko. Igandek giza izatea baiesten du.

Eguneroko bizitza, nolabait esateko, eten egiten du; ez, ordea, aste osoko bizitzatik ihes egiteko, baizik eta gainerako egunei eta giza bizitza osoari zentzua emateko. Igandeko ikuspegitik begiratuz, beste begi batzuez ikusi behar luke gizakiak bizitza, giza izate beteagoa izan dezan, horretara dei egiten baitio Jainkoak.

III.- IGANDEAREN EZAUGARRIAK

30. Igandea, larunbat arratsaldean hasi eta egun guztian irauten duen ospakuntza bat da. Igandearen ospakuntza ez da Eukaristiaren ospakuntza bakarrik. Eukaristia da, bai, igandearen gailur unea. Baina kristauok erabiltzen ditugu, egunean zehar, igandea ospatzeko beste osagarriak, herri eta gizarteko osagarriak barne direla.

Egia esateko, ez dugu ospatzen igandea bera; Kristoren misterioa da, hobeiki, igandean ospatzen duguna, eta jai ezaugarriak erabiltzen ditugu horretarako. Hauekin adierazten dugu, eta gaurkotzen, igandean ospatzen dugun misterioa. Hauek dira zehazki igandearen ezaugarriak: batzarra, Eukaristia, Jainkoaren Hitzza, elkarmaitasuna, atsedena, jaia eta alaitasuna. «Igandearen ezaugarriak» deitzen diegu, igandean ospatzen dugun misterio osoaren alderdi batzuk agertzen dizkigutelako, eta, aldi berean, igandearen sakramentu izaera gaurkotzen eraginkorki laguntzen digutelako.

Erabiltzen diren ezaugarriek, benetan adierazle eta esanahitsu behar dute izan. Haien bidez irits daitezke sinesgabeen belarrietaraino, kristau elkarteak ospatzen duen Berri Onaren oihartzunak. Honetan dago, neurri on batean, kristauon igandek duen ebanjelizatze indarraren sustraia.

Kristau batzarra

- ***Igandea, batzar eguna***

31. Igandearen ospakuntzan, betidanik, gizartearen begietan gehien nabarmentzen dena, kristauok egun horretan batzarrean biltzeko duten ohitura bera da. Igandea, kristauak biltzen direneko eguna da. Igandea kristauentzat, besterik baino lehen, batzar eguna da. Leku berean kristauok izaten duten batzar edo bileragatik da igandea, neurri on batean eta lehenengo, igande.

Berpiztua, nekaldiko ekaitzak sakabanatutako ikasleak biltzen hasi zenetik, batzarra da igandearen kristau ospakuntzaren osagai nagusia. Ebanjelariak ardua jartzen dute, «bildurik zeuden ikasleei» (Jn 20,19.26) agertu zitzaiela esatean. Aspaldiko hasiera haietatik, Berpiztuaren inguruan senideen elkarganatzeko pozgarriak nabarmendu du sakonki igandea. Historiaren argitan ez dago batzar gabeko iganderik irudikatzerik. Elkarre mistika bat nabaritzen da, sakon sakonean, igandearen ospakuntzaren sorreran¹².

- ***«Ez utzi gure batzarra»***

32. Aspaldietatik, igandearen pastoraltza arduratu duen kezka nagusia, lekuko sinestun guztiak toki berean, Jaunaren oroipenean biltzea izan da. Hebertarren

¹² Igandearen ospakuntzari buruz, Itun Berritik eta II. mendetik iritsi zaizkigun aitormenik zaharrenek, aho batez aipatzen dute batzarra egiten zela (ikus Ap Eg 2,1; 20,7; *Didache* 14,1; Antiokiako San Inazio, Plinio Gaztea, San Justino...).

epistolaren egileak jadanik honela eskatzen zuen: «Ez utzi gure batzarra, batzuek egiten duten bezala; baizik eta bizkortu elkar, batez ere Jaunaren Eguna hurbiltzen ikusten duzueenez gero» (Heb 10,25).

Igandeetako batzarraren beharra, gehiago begiratzen da Eliza berarengandik, kristau banakoengandik baino. Eliza batzarrik gabe, esana ukatzea izango litzateke. Jaunaren Egunean biltzea, eliz gorputzaren premia biologiko bat bezala sentitu izan da¹³.

Baina kristau bakoitzak ere, banaka, bere kristau izatearen premia estu bat bezala sentitu behar du, senideen bileran igandez parte hartzea. Honen lekuko dira, arrazoiz «igandearen martiri» deitzen diegunek, 304. urtean, eman zituzten erantzun miregarriak: «Kristau gara, horregatik bildu gara batzarrean... Jaunaren eguna ospatu dut senideekin, kristau naizelako... Jaunaren eguna ospatu dugu bakean, ez bait dago uzterik Jaunaren egunaren ospakuntza... Ezinezkoa da guretzat, Jaunaren eguna ospatu gabe (bizitzea)» (Martirien aitormenak). Ez zuten haiek, igandean Meza entzutera behartuko zituen agindu kanonikoaren beharrik.

- ***Elizaren agerkunde***

33. Batzarra, Kristoren misterioa ospatzen duen Elizaren ezaugarri da, batez ere eta zuzenki. Eliza batzarrean eta batzarraren bidez gertatzen da ageriko. Elizaren benetako «epifania» edo agerkunde den batzarrean dugu, ispilu batean bezala isladatua, Elizaren izaera, egitura, jatorria, sinesmena eta bokazio edo helmuga.

Elizaren agerkunde nagusia, otoitz berean osoki eta eginkorki parte hartzen duen Jainko herri santuan burutzen da, bereziki Eukaristia berean gotzainak, bere apaiz eta beste laguntzailez inguraturik, aldare bakarraren inguruan batzar-buru egiten duenean. Beste kristau elkarteek ere, ordea, eta hauetan nabarmenki parrokiek, mundu osoan erroturiko ageriko Eliza ordezkatzan dute nolabait¹⁴.

Igandeko batzarrak, elkar aurkitzearen leku izan behar du, batzarrean biltzen den elkarte jakinarentzat; adiskidetze eta hurbiltzearen leku; haserre bideak gainditzearen, elkarrekiko onarpenaren, solidaritza keinuen, zerbitzu eskaintzaren eta senide elkarpenaren leku. Elkarte sena da aurre-baldintza batzarra elkartu dadin, eta elkarte senak indartuagorik atera behar du, senidetasunaren bizikizun berri honetatik.

¹³ III. mendearen erdi aldera, *Apostoluen Didaskalia* izeneko liburuan aholku hau ematen zaie gotzainei: «Irakasten duzunean, agindu eta etsiarazi kristau herriari leial izaten batzarrean biltzeari; ez dadila inor falta izan, baizik eta leial izan dadila denen batzarrerara etortzen; ez etortzearekin inork Eliza murriztu ez dezan, eta Kristoren Gorputza gutxitua gera ez dadin, bere zatietako bakar bat falta izateagatik. Inork ez dezala besteen ardura bakarrik izan; berberarengan ere pentsa dezala, Jaunak esana duena entzutean: “Nirekin biltzen ez duenak, sakabanatu egiten du”. Kristoren gorputzeko atal zaretenez gero, ez engainatu zeuon buruak, eta ez utzi gure Jauna atalen baten faltan, ez urratu edota sakabanatu Haren Gorputza» (13. kap.).

¹⁴ Ikus *Sacrosanctum Concilium*, 41. 42. z.

- ***Gizakientzat ezaugarri***

34. Oharkabeen edota zalantzartean bezala pasa daiteke, astean zehar, salbamen sakramentu den Elizaren presentzia. Presentzia hori barreiatua gera daiteke, Elizak berak eta kristauak gizartean ari dituzten era bateko eta besteko ekintzetan.

Igandeko batzarrak, ordea, den bezala agertzen dio gizarteari Elizaren mundutarteko izate hori: Berpiztuaren oroipenean biltzen den sinestunen elkarte bezala, alegia, Pazkoaren edota erospen orokorraren sakramentu, gizakiak Jainkoarekin batutzeko tresna, senidetasun orokorraren irudi eta Erreinuaren elkartasun betearen ezaugarri.

Elkarte bakoitzak galdetu behar lioke bere buruari, zer-nolako eliz irudia ematen ote dion munduari, igandez igande biltzen denean.

- ***Kristau batzarraren gaur egungo garrantzia***

35. Igandeetako batzar honek garrantzi nabarmenagoa hartzen du gaurko gizartean; pertsonen arteko harremanak ahultzeko eta zeharo pragmatiko edo interes hutsezko bihurtzeko ere arriskuan dagoen gizartea dugu, izan ere, gaurko hau. Gogoan izan behar dugu kristauok, sinesmena ez dela bakarka bizitzen den «hobby» bat, elkartearen altzoan janaritu, garbitu eta aberasten den bizipen bat baizik. Igandeko batzarra izan daiteke, gaur egungo gizarteko kristautentzat, Jesukristoganako beren sinesmena hazten deneko «sukaldea».

Bestalde berriz, gizarte pluralista batean bizi garelarik, bidezko da guztiok era berean ez pentsatzea, eta politika pentsakera edo jarrerak ere berdinak ez edukitzea. Igandean, ordea, sinestun garenez biltzen gara denok, edozein bereizgarriren gainetik, Bataio bera hartu eta fede bera dugunez, alegia. Jaun berak deituta, fede bera dugu aitortzen, Jaungoiko bera hots egiten, ogi beraz gara janaritzen, eta gero sakabanatzen gara berriz, Espiritu beraz arnas berriturik, mundu anaikorra goa eraikitza.

Eukaristia

- ***Igandea, Eukaristiaren eguna***

36. Berpiztuak bere lagunekin izandako elkar-aurkitzeen kontaeretan, ez du ia inoiz huts egiten otorduaren aipamenak¹⁵. Bidezko deritzagu, horretan Eukaristiarekiko lotura ikustea. Dena dela, ikasleen pazko bizipen honek erasan zion sakonki beraien Eukaristiarekiko ulerpenari, eta igandearekin zeharo lotuta utzi zuen Eukaristia. Jesusen Igokundearen ondoren, lehenengo kristau elkarten bizitzaren erdigune izango da, igandean ospaturiko «ogiaren zatitzea»¹⁶, eta bizirik gordeko du haiengan Berpiztuarekiko lehenengo elkar-aurkitze haien oroi-pena.

¹⁵ Ikus Lk 24,30-35; 24,36-43; Jn 21,1-13; Mk 16,14; Ap Eg 1,4-8; 10,41: «... guri, Hura hilen artetik piztu ondoren, Harekin jan eta edan genuenoi».

¹⁶ Ikus Ap Eg 2,42.46; 20,7-8.10; 1 Kor 11,20.

Igandearen eta Eukaristiaren arteko lotura honek aldakuntzarik gabe iraungo du toki guztietan. Orduz geroztik, «igandea, Jaunaren eguna, Eukaristi ospakuntzaren egun nagusia da»¹⁷. Legez eta bidez izan ere, han aurkitzen baitute beren esanahi eta eraginkortasun betea, bai igandearen ospakuntzak, bai, batez ere, igandeko batzarrak. Beregan biltzen ditu Eukaristiak igandearen esanahi osoa eta alderdi guztiak. Eukaristiaren balioak begiz jotzea, igandearen aberastasuna begiz jotzea da. Horregatik eukaristi garaiak igandearen ospakuntzaren gailurra du adierazten.

- ***Pazkoaren eta Jauna tartean egotearen sakramentu***

37. Eukaristiak, pazko opariaren oroigarri eta Berpiztua tartean egotearen sakramentu delarik, kristau elkarteari egokiera eskaintzen dio, igandearen helburu nagusi dena, mardultasun bereziz bizi ahal izateko, hau da, asteroko Pazkoa eta piztuera eguna. Elizaren beste sakramentuetan ez da gertatzen, honetan bezalako benetasunez, pazko gertakariaren gertaberritzez. Misterioarekiko elkarpenak ere ez dezake iritsi, otorduaren sinboloak duen benetasun mailarik.

Eukaristi ospakuntzaren ihardunaldiak, beregan dituen Jaunaren presentziaren ezaugarri ugarien bitartez –batzarra, batzar-buru den apaiza, Hitzza, ogiaroak, jaunartzea–, aldarte eta giro ezin hobeak eskaintzen ditu, Berpiztuarekiko elkarganatze eta harreman baketsu baterako. «Etengabe gogoan eduki behar da, ikasleak Kristoren presentzia misterioaren aurrean esandako hura: ‘Jauna da’ (Jn 21,7). Liturgian egiten dugun ezerk ez du agertu behar, Kristok bere Espirituaren egitez, ezkutuan baina benetan, egiten duena baino garrantzitsuagorik»¹⁸.

Ulertzen da, zergatik den batez ere «Jaunaren Afariaren» ospakuntza, igandea «Jaunaren egun» egiten duena eta Jaunaren bere Elizarekiko presentziaren egun bihurtzen duena.

- ***Eukaristiazko jaunartzea***

38. Horrexegatik da pozbide, igandeeetako Eukaristietan jaunartzen dutenen kopurua, batz beste, gure artean gehitu izana. Eukaristiako jaunartzean iristen da bere gailurrera, Jesus berpiztuarekiko eta bere salbamen misterioarekiko elkartearen eta bakoitzaren elkarganatzea. Baina beharrezkoa zaigu San Pauloren oharpena gogoratzea ere: «Azter beza lehendabizi bakoitzak bere burua, eta jan beza gero ogia, eta edan kalizatik» (1 Kor 11, 28). Automatikoki eta prestaera egokirik gabe jaunartzera hurbiltzeak bere esanahiaz eta fruituez hustu dezake hainbesteko sakontasuna duen keinua, eta Kristorengana gehiago hurbildu ordez, Harengandik urrutiratu genitzake.

Batzuk egon litezke jaunartzetik eragotziak, beraien bekatu astunaren oharpenagatik. Horrelakoetan gogoratu behar dute Adiskidetzearen eta Eukaristiazko jaunartzearen arteko zerikusia. Horregatik, apaizok gertu egon behar dugu beti, jendea hartzeko eta, eskatzen diguten guztiei, Elizaren arauen eran, Adiskidetze sakramentuaren aukera emateko. Beste kristau batzuei, Jainkoaren

¹⁷ *Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 1193. z.

¹⁸ Joan Paulo II.a, *XXV annus*, 10. z.

eta Elizaren aurrean duten ez-arauzko egoerak, jaunartze bidea itxi egingo die. Batzuek eta besteek jakin behar dute, jaunartu gabe ere, Eukaristian parte har daitekeela, osoki ez baina eginkorki bai, edozein egoeretan.

- ***Betierekotasunaren sakramentu***

39. Igandeak, bestalde, mundu berriaren iragarpenezko sinbolo izan nahi du bere agerpen guztietan, eta geroko biziaren eta aintzaren aurre-bizipen. Halaxe lortzen da, mailarik gorenean, eukaristi ospakuntzan, Erreinuko otorduaren aurreratzea baita Eukaristia¹⁹, betierekotasunaren sakramentu, betiko aberrian gertatuko den Jainkoaz gozatzearen aurre-eredu.

Hor burutu dezake bete-betean Elizak, kristau elkartean eta gizartean itxaropenaren garra bizkortzeko eta iraunarazteko duen bokazioa.

- ***Eliz elkartasunaren misterio***

40. Elizaren egun, eta senidetzaren eta elkartasunaren egun den igandeak, eukaristi ospakuntzan aurkitzen du bere adierazpiderik osoena eta gertatzearen mailarik gorena. Hitzaren eta Kristoren Gorputz-Odolen etxeko mahai inguruan biltzen dira anai-arreba guztiak, sakabanatutako umeak bildu zituen oparia elkarrekin berriztatzeraz²⁰, eta Gorputz bakarrean oretuko dituen elkarpen ogia erdibanatzeraz²¹. Hauxe dugu Elizaren agerkunderik osoena.

Eukaristi ospakuntza guztia, aurrenetik azkeneraino, senidetasunaren liturgia da, eta, bertan, etengabe gertatzen dira elkartasun eta senidetasun keinuak; Elizaren elkarmaitasunezko batasuna da bertatik espero den emaitza; hauxe da eukaristi otoitzak bere bukaeran, hizketa ezberdinetan eskatzen duena. Guzti honengatik gertatzen da igandeko eukaristi ospakuntza, elkartearen bizitza osoaren iturri, erdigune eta gailur.

Eukaristiaren ospakuntzan, benetako kristau elkarte baten lokarriak adierazten eta indartzen ditu kristau batzarrak. Horregatik gogoratzen du Vatikanoko II Kontzilioak: «Ez daiteke inolako kristau elkarterik eraiki, eukaristi ospakuntza ez bada bere sustrai eta orpo. Eukaristiatik abiatu behar du, beraz, elkarte espirituaren hezkuntzak» (*Presbyterorum Ordinis*, 6. z.). Eta Paulo VI.ak, gotzainaren Eukaristiari eta parroki elkarteko Eukaristiari buruz zera esaten zuen: «Igandeko Mezaren elkarrekiko ospakuntzan bereziki bizkortzen eta adierazten den Elizaren elkarte sena, zuzpeltu egin behar da, bai gotzainaren inguruan, batez ere gotzain elizan, baita parroki elkartean ere, parroki elkartearen artzainak gotzainaren lekua betetzen du eta»²².

Horregatik deitzen zaie kristauei, normalki bakoitzak bere parroki elkarteko Eukaristian parte har dezan, harekin elkartzten duten lokarriak areagotzeko eta partaide eginkor gisa parroki elkartea aberasteko.

¹⁹ Ikus Lk 22,16.

²⁰ Ikus Jn 11,52.

²¹ Ikus 1 Kor 10,17.

²² Paulo VI.a, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena, 26. z.

- ***Igandeko Mezaren agindua***

41. Kristauon igandearen eta Eukaristiaren arteko lotura sakon hau dago, igandeko Mezari buruzko Elizaren aginduaren sorreran. Elizak bere-berezko lotura hau nabaritu zuen lehenengo. Eta geroago bakarrik etorri zen aginduaren joskera.

Beharrezko da, gaur ere, igandeko Eukaristian parte hartzeko aginduaren garrantzia ulertzea eta ulertaraztea. Baina hainbeste eta hain garrantzitsuak izanik agindu honetan jokatzaren diren bakarkako eta elkarteko balioak, igandeko iharduerarekiko leialtasunak bakoitzaren etsian oinarritu behar du, batez ere, taldearen eta bakoitzaren bizitasunerako ezinbestekoa zaigunaren etsian, alegia.

Txango egin beharra daukagu, Meza bakarkako erlijio ekintza bezala ulertzetik, elkarte guztia janaritzen eta eraikitzen duen Eukaristia bezala ulertzera. Besteak egonean «entzuten» duten bitartean, «Meza ematen» duen apaizari legokiokoen arazo batetik, denek eginkorki eta jakinean bizi duten ospakuntzara. Elizaren agindu bati erantsitako betebeharrak sagaratu batetik, elkarrekin bere fedea jarraitzeko, senidetasunean irabazteko eta Kristo piztuaganako itxaropena birbizteko ospatu beharra daukan bilera pozgarrira.

Jainkoaren Hitzak

- ***Igandea, Hitzaren eguna***

42. Apostoluen garaietatik²³, kristau batzarrak aldi bat ematen dio Jainkoaren Hitzaren hots egiteari, batez ere igandeko eukaristi batzarretan. Hots egite hau igandearen kristau ospakuntzaren osagarri alda ezinetako bat gertatzen da: ez dago iganderik Jainkoaren Hitzik gabekorik. Igandeari Hitzaren egun ere dei geniezaioke.

Berpiztuaren bere ikasleekiko elkarraldietan, izaten zen aldi bat Hitzari eskainia. Emausko gertakarian, ogia zatitzearen aurretik, «Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuan Hartaz idatzitako guztia agertu zien» (Lk 24,27). Igandeko batzarrera joatea eskatzeko arrazoirik estuenetako bat, Jainkoaren Hitzaz janaritu beharrarena da²⁴.

Komunikabideek eta iragarkiek irmoki eragindako gure gizarte honetan ez da erraz zentzudun eta aske irauten, pentsakerak, balioak, bizikera eta jokabideak ezartzen ahalegintzen zaigun bultzazoaren aurrean. Hainbeste dei eta eskabideren erasopean, gaur egungo gizakiak arriskua dauka, ez bere buruaren ahotsa ez bere fedearen eskakizunak eta agintzariak, ez entzuteko. Horretatik dator, sinestun argi eta arduratsu baten bizitzan Jainkoaren Hitzak entzuteak

²³ Ikus Ap Eg 2,42: «Senideek zintzo irauten zuten apostoluen erakutsietan».

²⁴ Eliz tradizioak garrantzi handia eman izan dio beti, Jainkoaren herriak biziaren Hitzarekin astero izaten duen elkarketa honi: «Ez jarri bizitza honetako zuen arazoak Jainko Hitzaren aurretik; alderantziz, utzi gauza guztiak Jaunaren egunean, eta joan arduraz zeuon batzarrera, han baitago zuen gorlpena. Bestela, zer aitzakia izango dute Jainkoaren aurrean, Jaunaren egunean biziaren Hitzak entzuteko eta betiko iraupena duen jainkozko janariaz elikatze bati biltzen ez direnek?» (*Apostoluen Didaskalia*, 13. kap.).

behar duen toki berezia. Astean zehar, ahots eta hitz ezberdinak entzuten ditugu, era guztietako berriemate, iritzi eta irudik erasotzen dute gure bizitza. Igandean, noizbait, geratzen gara, geure ekintza bideratu eta geure itzaropena argitu dezakeen Ebanjelioa entzutera.

- ***Mahai ugaria***

43. Liturgiaren azken eraberritzeari esker, Elizak igandeetan eskaintzen duen Jainkoaren Hitzaren mahaia hobeki hornitua agertzen da, Bibliako irakurgaien hiru txanda eskaintzen baitzaizkigu, lehenaldian baino aukera ugariago eta aberatsagoz. Hainbesteko aberastasunaz baliatzea dema bat gertatzen da artzainen-tzat eta sinestunentzat.

Liturgi urtean zehar, Bibliako irakurgaiak Jainkoaren egintza neurrigabea zabaltzen doaz herri sinestunaren begien aurrean. Irakurgai hauei esker, igande bakoitzak bere aurpegi berezia dauka eta Kristoren misterioaren alderdi edo une berezi bat azaltzen du. Argi ibili beharko da, ekitaldi berezien ospakuntzak kal-tetarako eragina izan ez dezan, irakurgaien hiru txandetako bakoitzak duen egi-tarauaren garapen egokian.

Hitzaren hots egitea liturgian benetako salbamen gertakaria da eta hortik dator kio eginkortasun oraindik ere handiagoa. Elizan Liburu Santua irakurtzen denean, Jainkoa da bere herriari hitz egiten diona eta Kristok berak jarraitzen du bere Berri Ona hots egiten²⁵. Hitzaren liturgia erospeneren oroigarri gertatzen da eta kontatzen duen gertakizunaren gaurkotze. Hitzaren entzuteak salbamen misterioarekin harremanetan sarrarazten gaitu egiaz.

- ***Homiliaren egitekoa***

44. Eliztarrei aberastasun guzti hauez jabetzen eta hobeki berengana dezaten laguntzeko, ordezka ezina da homiliaren egitekoa. Igandeko ospakuntzaren puska oso garrantzitsua da, behar bezala aintzat hartzen zaila bada ere.

On da gogoratzea, homilia «liturgiaren beraren puska» dela²⁶ eta «Hitzaren hots egitea luzatzen duela»²⁷. Liturgi ekintza denez, Kristoren ekintza ere bada. Kristo bera ari da, Hitzaren ogia zatitzen duen zerbitzariarengan²⁸.

Hots egin diren mintzaldi sagaratuetatik abiatu, irakurgaien zentzua ulertaraztea da lehendabizi homiliaren egitekoa. Bigarren, berriz, irakurgaiak Jaunaren misterioarekin dituen loturak ikustarazi behar ditu, beraiei darien argiz misterioa argituz, horrela eliztarrek sinesmenaren ospakuntzara eramateko. Azkenik, homiliari dagokio, Hitzak eta misterioak bizitzarekin duten eraspenera erakustea: Homilia «ez daiteke muga, Jainkoaren Hitza esaldi orokor eta abstraktutan aurkeztera, baizik eta bizitzaren aldarte zehatzei erantsi behar die Ebanjelioaren betiko egia» (*Presbyterorum Ordinis*, 4. z.).

²⁵ Ikus *Sacrosanctum Concilium*, 7. 33. z.

²⁶ *Sacrosanctum Concilium*, 52. z.; ikus 35. z.

²⁷ *Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 1153. z.

²⁸ Ikus Paulo VI.a, *Eucharisticum mysterium* Irakaspena, 55. z.

«Gotzainen eginkizunik nagusien artean, Ebanjelioa hots egitea nabarmentzen da» (*Lumen gentium*, 25. z.). «Kristoren Ebanjelioa guztiei hots egitea da, apaizek, gotzainen lankide direnez, duten lehenengo ministeritza» (*Presbyterorum Ordinis*, 4. z.). Ministeritza honek eskatzen du eta merezi du, urrutiko eta gertuko prestakuntza arduratsua²⁹.

Senidearteko elkarmaitasuna

• *Igandea, elkarmaitasunaren eguna*

45. Elizak igandearen ospakuntzan mamitzen duen misterioan bada elkarmaitasun eskakizun bat. Hasiera-hasieratik, egun honetan azaldu eta burutu izanda da, berezko harian, Elizaren elkarmaitasuna. Igandeari senidearteko elkarmaitasunaren egun ere dei geniezaioke.

Apostoluen garaiko Elizan, «ogiaren zatitzearekin» batera, ondasunen elkarbanatzea aipatzen da. «Zeukaten guztia guztiena zuten; ondasunak eta gauzak saldu egiten zituzten, eta haiekin hartutakoa denen artean zabaltzen zuten, bakoitzaren beharrari zegokionez»³⁰. San Paulok Korintoko kristauei, Galaziakoei agindua zien bezalaxe agintzen die, «igandero jar ezazue bereiz norberak onez onean aurreratu duena» (1 Kor 16,2), Jerusalemgo senideen aldeko dirubiltzerako izan dadin. Eta igandeko Mezari buruzko idazkirik antzinakoenean irakurtzen dugu hau: «Eguzkiarena deritzan egunean... eskuarte dutenak, nahi badute eta bakoitzak askatasunez, ongi iruditzen zaiena ematen dute; eta horrela biltzen dena buru dagoenari ematen zaio, eta hark laguntza ematen die umezurtz eta alargunei, gaixoaldia dela medio edota beste zerbaitegatik beharrean aurkitzen direnei, espetxean daudenei eta bidez doazen kapotarrei...» (San Justino, 150. urte inguruan).

• *Elkarmaitasunaren eskakizunak*

46. Asko dira, igandek ospatzen duenetik jalkitzen diren elkarmaitasunezko eskakizunak:

- Igandeko jaiaren eta, oso bereziki, eukaristi oroipenaren ospagai nagusia pazko gertakaria da. Maitasunaren goreneko adierazpena izan zen eta maitasunezko erantzuna eskatzen die ospatzen dutenei.
- Iragartzen eta agintzen digun urraturik gabeko senidetasunaren aurrebizipena dago gero. Zuzentasun, maitasun eta bake Erreinuaren aurremaitza izango den mundu gizakoi baten eraikuntzan jadanik konpromezua hartzera bultzatzen gaitu.
- Kristau batzarra Elizaren egunean, elkartasunaren bizipen da, anaidi jakin baten altzoan, leku egokia gorrotoak lurperatzeko eta adiskidetasun lokarriak estutzeko.

²⁹ On izango litzateke, homiliaren erantzukizuna dugun guztiok arretaz irakurtzea, Liturgiako Gotzain Batzordeak prestatutako idazkia: *Partir el pan de la palabra, Orientaciones sobre el ministerio de la homilía* (Madril, 1983).

³⁰ Ap Eg 2,44-45; ikus 4,32-37.

- Igandeak kristauari ebanjeliozko eredia aurkezten dio, eta honek senide maitasunaren legea du bere iturburu araugile.
- Eukaristia, Jainko maitasunaren oroigarria eta eliz elkartasunaren sakramentua denez, Elizaren elkarmaitasunaren sorleku nagusi da, Eliza bere beharrean direnengana joatera behartzen duena.
- Eta atsedetak eta jaiak sortzen duten lasaitasun, barealdi, alaitasun eta gozaldi giroan ere, ezinbestez gizakiaren bihotza zabaltzen du eta bere antzekoekiko, batez ere behartsuenekiko topaldira, elkarbizitzara eta solidaritzara eragiten du. «Atsedean aldia duten kristauek oroitu egin behar dute beren senideetaz. Behar berberak eta eskubide berberak dituzte haiek, eta ezin dute atsedetik hartu, pobretasuna eta miseria direla medio. Kristau jaiarak egintza onei eskaini die tradizioz igandea, eta gaixo, indargabe eta zaharrekiko zerbitzuak egitera»³¹.

Arrazoi guzti hauengatik, igandea deialdi sendo eta behin eta berrizkoa da, maitasunera, errukizko egintzetara, senidetasunera, solidaritzara eta zuzentasunaren aldeko konpromezura.

• *Senidetasunaren eguna*

47. Igandea, norbere elkartearen barruan kristau maitasuna bizitzeko deia da, lehenengo: etsaigo guztiak itoz, bihotz zabalez barkamena elkarri emanaz, elkarriketarako prestatuz, adiskidetasun keinuak ugarituz, bakoitzak bere zatia elkartearen bizitza eta hazkuntzarako erakarritz.

Kristau elkartearen eta elkarteko kideen lehentasunezko arretak, gehien behar duten senideetara joan behar du: gaixoetara, bakarrik edota egoitzetan diren zaharretara, banakatueta, espetxetueta...

Igandero, berritu egin beharko lukete elkartea osatzen duten kristauek, banaka eta elkar bezala, beren elkartea benetako senidearte bihurtzen saiatzeko erabakia.

• *Muga gabeko elkarmaitasuna*

48. Baina kristau elkarmaitasunak ez du mugarik ezagutzen. Igandeak, elkarmaitasuna beren elkartearen mugetatik harantz eramatera eztenkatzen ditu kristauak.

Igandeko Eukaristia, baztertuen beharrian eta larritasunak elkarbanatuz bakarrik ospa daiteke; haien eskubideak babestuz, alegia, eta bizitza duintasuntsuagoa eskuratzeko haien zaletasunekin konprometituz. Bidezko al da, igandez igande, «batasunaren ogia» elkarrekin banatu, eta gero lasai bizitzea «gizarte bikoitz» honen erdian, gure artean sortzen ari ditugun pobre berriekin geure ondasunak konpromezu gehiagoz elkarbanatu gabe? Bidezko al da, eukaristi ogia elkarbanatzen jarraitzea, arduratsuago elkarbanatu gabe ekonomi krisiaren ondorioak, inongo kontrolik gabe geure dirua eralkiz, geure eskubideak bakarrik oihukatuz, eta geure irabazpideak arriskuan ikusten ditugunean bakarrik mugituz?

³¹ *Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 2186. z.

Ikuspegi honetatik badu zentzua, lurralde nolabait urrutiko misioen, gizar-tearen eta behartsuen ekintzetarako kristauen laguntza eskatzera datozen ekitaldi berezi batzuk egiteak. Egiteko garrantzitsua bete dezakete elkarmaitasunaren hezkuntzan, asmo zabalagoetara bideratuz.

Kristau elkarmaitasunak berak, igandearen eta, batez ere, Eukaristiaren ospakuntzak bizkorturik eta indarturik, eztenkatu egin behar du kristauen konpromezua ere, mundu zuzenago eta anaikorrago baten alde. Egian eta zuzentasunean bakea sortzeko bakarkako eta elkarteko ahalegin guztiek, igandeko eukaristi ospakuntzaren argitan eskuratzen dute beren zentzu osoa.

Ospakuntza horretan, mundu berria eraikitzen lan egiteko agindua hartzen dute kristauak Jaun berpiztuagandik, bere azken betetasuna aurreratu eta iragarriko duen mundu berria eraikitzeko, alegia.

Atsedena

• *Igandeko atsedenen legea*

49. Kristau usuarioak, zenbait gizaldi pasa eta gero ezarri zuen igandeko atsedenen legea. Lehenengo gizaldietan, igandea lan eguna zen guztientzat. Kristautentzat ere bai, nahiz eta hauek asteroko Pazkoa igandean ospatu. Gizarteko legeetan oso pixkanaka sartu zen, igandean atsedena hartu beharra. Hasiera batean, Elizaren aldetik, ez zen horrelako poz handirik izan. Denbora pasa ahala, igandearen kristau ospaketaren barruan jaso eta josi zuen atsedenen legea. Gerora, igandearen baliorik garrantzizkoenetakoa izatera iritsi zen.

Atsedena, igandearen giza balioak nabarmentzen dituen errealitate sozial eta kulturala da: baina, horrez gain, fededunontzat, badu igandeko atsedena ospakizun kutsua ere eta, alderdi horretatik, kristau igandek ospatzen duen misterio aberatsen agerpen eta ezaugarri da. Gainera, beren fedea elkarrekin ospatu nahi dutenen topaketa errazten du igandean atsedena izateak.

• *Kristorengan daukagun askatasunaren ezaugarri*

50. Igandeko atsedena pazko ezaugarria da eta, beraz, Kristoren Pazkoan giza-diak jaso duen askatasunera garamatza. Halaxe zen judutarrentzat ere larunbateko atsedena. Israeli atsedenen agindua eman zitzaion, Jainkoak Egiptoko morrontzatik askatu zuela oroï zezan³². Judutarren Pazko hura gure askatasunaren aurre-irudi izan zen, Kristok pazko misterioan eman zigun askatasunaren aurre-irudi.

Kristauen igandeko atsedena, Kristoren Pazko askatzailearen ezaugarri da. Igandeko kristau ospakizunaren misteriora garamatza bete-bete. Herri askea dela oroitarazten dio kristau herriari: Jainkoak Kristorengan harrigarriro askatu duen herria, bekatuaren morrontzatik eta bekatutik sortzen diren lotura minga-

³² «Oroi zaitetz morroi izan zinela Egiptoko lurrean; eta Jaunak, zure Jaungoikoak, atera zintuela handik esku azkarrez eta beso zabalez; horregatik agintzen dizu Jaunak, zeure Jaungoikoak, jai egiteko larunbatean» (Dt 5,15).

rrri eta desegileetatik askatutako herria. Kristauaren duintasuna eta Jainkoaren seme-alaben askatasuna adierazten ditu.

Atsedena, bere horretan, askatasuna da: lanetik libre geratzen garelako, eta karga eta beharrak kentzen zaizkigulako. Baina, batez ere, gizadi librearen ezaugarri da. Gizaerako aisialdia, askatasunaren ezaugarri eta esperientzia da.

Gure egunotan, benetan, adierazgarria izan daiteke igandeko atsedenen alderdi hau: gizakiaren duintasuna baieztatzeko aukera izan daiteke, lan giroan bizi dituen deformazio batzuen kontra: makinarekiko, produkzioarekiko eta lan sistema desegilearen morrontzarekiko askatasuna adieraziz. Atsedenerako denbora librea hartzen duenak zera erakusten du: beretzat, izatea egitearen gaitetik dagoela, pertsona lanaren gaitetik, bizitzaren kalitatea ondasun gosearen gaitetik.

- ***Betiko atsedenen agintzaria***

51. Kristauon igandeko atsedena, kreaioa burutu ondoren Jainkoak hartu zuen atsedena gogorarazten du: «Zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren atsedena hartu zuen» (Gn 2,2). Jainkoaren atsedena, Jainkoaren betikotasuna agertzen duen atsedena da. Jainkoaren atsedenean sartzeak, Jainkoarengan bertirako bizitzera joatea esan nahi du.

Igandeko atsedena, beraz, geroko betetasunaren ezaugarria da: bizitza honetako lanen ondoren jasoko dugun atsedeen gozoa gogorarazten du agintzari bezala, eta aurreratzen sakramentu bezala³³. Elizak igandea ospatzen du hemen behean, «gizadi osoa zure atsedean sartuko den azkenik gabeko igandearen zain dagoen bitartean»³⁴.

Gaurko kontzientziaren barruan bada uste bat: bizitzari sentidu sakonena emateko, lan egitea dela erabakiorra, eta etekinik handiena ateratzea. Programazioen eta plangintza organizatzaileen morroi eginik, eguneroko eginbeharretan kateaturik, ahaz genezake, bizia graziaz betea dagoela, eta gure lehen eginkizuna, Jainkoaren Espirituak guregan ari duen egintza errespetatu eta onartzea izan beharko lukeela. Igandek oroitarazten digu, badela lana baino zerbait gehiago. Bere misterio sakonenean, bizia erregalia eta dohaina da. Gizakia ez da langile hutsa; bere bizitzaren esker oneko gozatzaille ere bada. Ez gara betiko betian lan egiteko jaio, bizia gozatzeko baizik. Iritsiko da, bai, beti igande izango den eguna: beti Jainkoaren bizi betea pozik gozatzeko eguna.

- ***Atsedena eta kontenplazioa***

52. Igandeko atsedena kontenplazioari irekia dago. Liburu Santuak esaten du, zazpigarren egunean atsedeen hartu zuen Jainkoak, bere eskuen lana pozez begi-

³³ Ikus Apk 14,13. «Erabat bikaina izango den larunbata eta, egiaz, bikaina eta zorionekoa izango den atsedena Jainkoaren erreinuan izango duguna da, sei egunetako egintzak baino harantzago, eta begibistako gauzez gaitetik dagoena, gorputzik gabeko eta guretzat ulertezinak diren gauzen artean dagoena; izan ere, han guk, geure gorputz honetatik askaturik eta geure haragi honen morrontzarik gabe, Jainkoarekin eta Jainkoaren ondoan, ospatuko dugu larunbata eta hartuko atsedena» (Zesareako Eusebio).

³⁴ *Erromako Meza-liburua*, Urtean Zeharreko igandeeetako X. prefazioa.

ratu edo kontenplatu zuela. Igandeko atsedetak isiltasuna eta baretasuna jar-
tzen dizkigu eskura, kontenplaziorako. Kontenplazio honek, batez ere, Absolu-
tuarengana darama gizakia. Jainkoarekiko harreman pertsonaletara, otoitzera.
Giza bizitzari sentidua emateko balio du, goragoko helmuga batera zuzentzeko.

Baina, bide batez, izadiaren kontenplaziora garamatza. «Eguzkiaren
eguna» da igandea, lehenengo kreazioaren oroipena, kosmos osoarekin topo
egin eta elkartzeko egun egokia.

- ***Atsedena, giza harremanak eta norberaren garapena***

53. Igandeko atsedetak badu, gainera, beste alderdi ederra: elkarte edo sozial
alderdia, giza harreman aberasgarriak lantzea errazten baitu. Batez ere, «giza-
kiaren eskubidea eta beharra da, eguneroko lan neketsuan geldiene bat egitea...
famiaren batasunari begiratzeko, familiak bere kide guztiak sarri biltzea eska-
tzen baitu eta elkarbizitza gozoa»³⁵. «Kristauak Igandea santutu behar dute,
famiari beren denbora eta astegunean ezin daitekeen ardura eskainiz»³⁶.

Igandeko atsedetak, «geldiune sortzaile» izan beharko luke bakoitzaren-
tzat, nork bere buruarekin topo egitea, askatasun psikologikoa, baretasuna eta
barne oreka eraginez³⁷.

Igandeko atsedetak, gainera, aukera ematen dio bakoitzari, «eguneroko
lanak uzten ez diolako, garatu ezin dituen beste ahalmenak lantzen saiatzeko»
(*Gaudium et spes*, 67. z.), era askotako ekintzetan parte hartuz: kultur, kirol edo
turismo ekintzetan. Gizakiak espirituz eta gorputzez berritua atera behar du
igandetik.

Jaia eta alaitasuna

- ***Igandea, jai nagusia***

54. Kristauon igandek duen jai eta gozamen alderdiak, ezaugarri edo sinbolo
bat izan nahi du, egun horretan ospatzen dugun misterioaren muina azaltzeko.
«Igandea da jai nagusia» kristauontzat (*Sacrosanctum Concilium*, 106. z).
Igandearen giza balioek, igandea hobeto ospatzen lagundu behar ligukete kris-
taui.

Igandea jai da, egun horretan Kristoren Pazko garaipena ospatzen dugu-
lako, eta Pazkoa «izadiaren jaia da» beti. Igandea festa da, gainera, egun horre-
tan santuen betiko jaia oroitzen dugulako, eta guk haien festan parte hartzen
dugu aurrez. Igandea Elizarentzat, festan bizi den herriaren eguna da. Bere
seme-alaba guztiak bildu eta Elizak bere jaiotza gogoratzen du eta gerorako es-

³⁵ Joan XXIII.a, *Mater et magistra* Entziklika, 250 z.

³⁶ *Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 2186. z.

³⁷ «Igandea gogoetarako eguna da, isiltasun, kultura eta gogarterako eguna, horiek hazten
laguntzen baitiote gure barne eta kristau bizitzari» (*Eliza Katolikoaren Kristau Ikasbidea*, 2186.
z.).

pero duen ospearean argitan murgiltzen da. Kristauarentzat igandea jaia da, Kristorengan gizaki askea egin zuen Gertaera ospatzen baitu.

Beraz, oso sakonak dira, eukaristi batzarrean bere gailurrera iristen den kristau festaren sustraiak. Eukaristia baita kristau jai guztien bihotza.

Kristau elkarte osoari eragiten dio festak. Elizak bere osoan ospatzen du igandeko jaia. Bakarka ezin daiteke festarik ospa. Ospakizunerako toki jakin batean denak elkartzea eskatzen du beti jaiak.

Festa batean denak dira parte hartzaile eta protagonista. Festan parte hartzea dagokio gizakiari, besteekin batera festa giroan bizitzea. Hortik datorkio jaiari bere betebeharrak soziala: kideen komunikazioa aberastu eta taldea elkartzea, alegia. Igandeko jaia ospatzera biltzeak, Eliza batu egiten du Jaunaren misterioan.

• *Festa kutsua*

55. Festa ospatzeko giro berezia behar da, «jai giroa», gozamen giroa; alaitasun jarrerara eskatzen du partehartzaile guztiongan. Bizi-gogoa esan nahi du festak. Kreazioari baietza ematen dio jaiak, baietza kosmoari eta beronen Sortzaileari: «Eta ikusi zuen ona zela» (Gn 1,10). Eta kristauon festa, batez ere, beste nonbaitetik datorkigun Bizi berria pozik onartzea da, Jaunaren piztueran agertu eta eman zaigun Bizia. Eta horrek halako oparotasun bat ematen dio jaiari bere itxuran, egunerokoarekiko etena eta ezberdintasuna sortuz.

Festa kutsu hau falta da sarri, igandeetako gure ospakizunetan. Baina festa kutsuaren falta, gure gizartean da, batez ere, kezkarria. XIX. mendeko industrializatzearen ondorioz batipat, sartaldeko gizakia “homo faber” edo gizaki langilea izan da, bizitzeko festa behar duela ia erabat ahaztuz. Dena produktiotik neurtzen du eta salmenta-kontuen arabera juzkatzen.

Gaurko gizakiak festaren kultura berraurkitu eta eskuratu behar du, diruz neurtzen ez denarentzako uneak bilatu; ezertarako ez denarentzat, etekinik ez duenarentzat, irudimenarentzat uneak urratu behar ditu. Errentagarritasun eta produkzio lotura horretatik askatu beharra dauka, etekin eta kontsumo girotik askatu beharra, eta festaren balio gizagilea sinestu beharra.

• *Alaitasuna eta beronen sustraiak*

56. Jaiak berezkoa du alaitasuna. Igandea jai bihurtzen duten arrazoi berak dauzka kristau elkarteak, alai egoteko:

- Jesus hilen artetik piztu zen eguna delako ospatzen dugu pozik zortzigarren eguna. Piztueraren adierazpenak, pazko gauak bezalaxe, Eliza pozik jartzen du igande bakoitzean, eta «pazko pozez gainezka jartzen dira gizon-emakume guztiak mundu zabalean»³⁸ gurutzetik sortu den Bizi berriagatik.

³⁸ *Erromako Meza-liburua*, pazko aldiko prefazioak.

- Igandeko alaitasuna, geroko munduan zintzoek jasoko duten zorion be-
tearen distira eta aurregozamina da; orduan Jainkoak «begietako mal-
koak txukatuko baitizkie, eta ez da izango gehiago, ez heriotzarik, ez ne-
garrik, ez garrasirik, ez atsekaberik. Lehengoak joan baitira» (Apk 21,4).
- Igandeko batzarra bera alai egoteko arrazoia da, sinesmenean senide di-
renak elkartzen baititu. «Poz izugarria ematen digu elkar ikusteak» (San
Jeronimo). Baina, biziaren sorburu eta iturria den Jainkoarekiko lotura
lasaitzen doan bezala, gaurko gizakiak arrisku bat dauka, festa-
alaitasunaren sentidua moteltzeko eta erabat galtzeko ere arriskua. Izan
ere, festaren orde, neurri handi batean, ikuskizunak sartzen ari dira,
kirol-lehiak, zinea, telebista edota bideoa. Igandearen kristau ospakizu-
nak gure barne-poza bizkortzera gonbidatzen gaitu, gure bihotza Jain-
koarengana jaso, berriro ere kreazioaren edertasun jatorra aurkituz eta
gure piztuera itxaropenez ospatuz. Igandea berreskuratzeke ez da aski
jolasten edo lasaitzen ikastea. Jarrera erlijiosoa berreskuratu behar
dugu; biziaren Sortzailearengana geure burua ireki, piztuera itxarope-
nez ospatu. Sakontasun honetatik, alaitasunez ospatzen du kristauak
jaia, adiskideekin topo egitea maite du; eta kreazioaz pozez gozatzen da.

IV.- IGANDEAREN ESKAKIZUNAK

57. Esaten ari garenaren arabera, igandea kristauki ospatzeak, Kristoren salbamena bere osoan indarrez bizitzera eramane behar du elkarteak eta kristau bakoitza. Jakina, salbamen hori ez da igandean bakarrik bizi behar, ezta kristau elkarteetan bakarrik ere. Muga horretaz harantz doaz benetako ospakizunaren eskakizunak.

Igandeak ez du izan behar kristautentzat, bizitzatik eta mundutik ihes egiteko aukera. Oso bestela baizik; igandeak lotura estuan egon behar du asteko beste egunekin eta kristauaren bizitza osoarekin, bizitza osoaren beharrezko zati bat baita. Gainera, misterioaren ospakizun guztiak bezala, kristauaren «munduan-izatea» errespetatu egiten du igandeak; eta ospakizunetik berriro ere mundura bidaltzen du kristaua, ospakizunean ikusi duen ereduaren arabera mundua berritzeko eginkizunarekin.

Bizitzaren oihartzuna ospakizunean

58. Egia da, ospakizunak eta festak, egunerokoarekin nolabaiteko etena adierazten du. Igandea, beste egunetatik ezberdina eta berezia da. Ezaugarri askoren bidez erakusten dugu ezberdintasun hori: atsedena, festa, jolasak, jantziak, otorduak, loreak...

Horrek ez du esan nahi, ordea, igandearen ospakizunak, kristauak bizi diren mundutik egun batez ateratzen dituenik, toki santu edo gela bakarti batean ixteko, egunero berengan eta gizarteetan bizi dituzten arazoekin loturarik ez dezentan izan.

Gure bizitza eta garaiarekin zerikusirik ez duen igandearen ospakizun kolore gabeari, mundutik eta historiatik urrutit dagoen ospakizunari, konpromezu eta borrokatik ihes egiten duen ospakizun espiritualista bati, arazoiz deituko litzaioke alienatzailea eta gizadesegilea; gizakia, bere sustraiak errotuta dauzkan lurretik ateratzen duelako. XX. mendearen bukaerako gizakiak oso barruan sartuta dauka bere «munduan-izatea» eta bere «historian-izatea»; hori dela eta, ezin dakizkioke interesgarri gerta, munduarekin eta historiarekin zerikusirik ez duten ospakizunak.

Igandearen ospakizuna, Elizari eta gizadiari egiten zaien Kristoren misterio askatzailearen komunikazioa da, historian eta munduan bizi duten une jakin batean egiten zaien komunikazioa. Gizakien bizitzak eta horien munduak, oso nabarmen azaldu behar dute Elizaren ospakizunetan.

Horrek ez du esan nahi, giza historiaren gertaerak ospatzen direnik. Elizak, bere liturgian, pazko gertaera ospatzen du beti, eta hori bakarrik. Baina Pazkoak bere salbamenez blaitu behar du giza historia; eta giza historiak, salbatu izateko, Pazko misterioan murgildua izan behar du.

Igandeko eukaristi ospakizunean elkarteak baditu une egokiak, elkartearen beraren edota bere herri nahiz hiriarren eta gizadi osoaren borrokak, nahiak,

tristurak, pozak, arazoak eta beharrak gogoan izan eta jaso ditzan. Horretarako dira, gertaerak Jainkoaren Hitzetik argitu behar dituen homilia, Jainko herriaren otoitza, diru-eskabide bereziak, etab.

Liturgi jaiak, irakurgaiek eta eguneko beste testuek ezezik, historiaren une jakin batean sartuta bizitzeak, eman behar diote igande bakoitzari bere berezitasuna. Igande bakoitza berria eta berezia da, eta honela azaltzea komeni da.

Igandeari dagokion bezala bizitzea

59. Kristau bakoitzaren bizitzan igandeak daukan betebeharra ez da igandean bukatzen; igandean ospatu eta bizi izan duen Pazkoaren graziak, aste osoa eta bizitza osoa eraberritzea nahi litzateke. Kristauaren ospakizunek eta eguneroko bere bizitzak elkar erasan eta aberastu behar dute. Bizitzak lotura ona izan behar du, ospakizunean bizitako errealitateekin eta han azaldutako jarrerekin.

Printzipio hau, maila ezberdinetan azaldu du kristau usuarioak:

- «sacramentum» hitzak bi esanahi ditu, sakramentua eta hitz ematea; hari honetatik, sakramentua ospatzen duenak hitz ematen du, ospatu duen misterioaren arabera biziko dela;
- garbi esaten du, gainera, sakramentuz eta irudiz adierazi eta bizi izan duen misterioa, eguneroko bizitza pertsonalera itzuli beharra dagoela;
- adierazten du, azkenik, kristauak, sakramentuz ospatu duen Kristoren misterioan azaldu zaion bizi-ereduari bizieraz jarraitzen saiatu behar duela.

Guzti hau ederki asko biltzen du, igandeari dagokionez, Antiokiako San Inaziok mamitutako esaldi bikain honek: «Igandeari dagokion bezala bizitzea.» Igandea, era honetan, portaerarako eredu eta irizpide bihurtzen da. Kristoren piztueran hasi den Bizi berria ospatzean, igandeak bizi-molde bat eskaintzen eta eskatzen du, Pazkoko Gizaki berriarengan agertu zaigun bezalakoa: librea, solidaritazkoa, besteentzat emana, alaia, itxaropentsua... Igandearen espirituari dagokion bezala bizitzea, bizi-arau bihurtzen da horrela.

Igandea eta kristau testigantza

60. Igandeko Eukaristia, bidaltzearen keinuarekin amaitzen da. Kristau elkar-tea, txertatua dagoen gizartera bidaltzen da, han Jainkoaren Erreinuaren legami izan dadin. Jaunaren egunean zehar bizitako esperientziak ez du gelditu behar, jasotako salbamena norberak gozatze motzean. Ospakizunetik ebanjelizatzerara joan behar da, ebanjelizatzeak esan nahi duen aberastasun guztiarekin.

Jaunaren ikasleek berehala elkarbanatu zuten beren senideekin Berpiztuaren esperientzia³⁹. Ospakizunak, Jaunarekin topo egitera eramaten bagaitu, Berpiztuaren testigantza ematera eragin behar digu.

³⁹ Ikus Mt 28,10; Lk 24,33-35; Jn 20,17-18. 21-23.

Astero Berpiztuarekin bat egiteak, bere eginkizun misiolaria indartzen dio kristau elkarteari, piztuera eguneko arratsaldean gertatu zena gertatzen da aldi bakoitzean, Jaunak ikasleei bere Espiritua itsatsi eta bere misio eginkizuna eman zieneko hura bera⁴⁰. Hartu zuten Espirituaren indarrak «Jesusen piztueraren testigantza indarrez ematera» eragin zien (Ap Eg 4,3). Jainkoaren herri osoak ere, berdin-berdin bidalia sentitu behar du. Ebanjelizatze-sen hau berezkoa du kristau bokazioak. Bere inguruan distiratzten ez duen fedea makaldu egi-ten da erabat. «Fedea, besteei emanez indartzen da»⁴¹.

Igandeko kristau ospakizunean gertatzen den guzti-guztia, misio eginbeharrez betea dago. Ospakizun horren bidez beregana iristen zaizkion salbamen ondasunak betebeharrak sortzen diote kristau elkarteari: ondasun horiek ez dauzkatenekin banatzekoa. Dohaina eta misioa uztarri berean lotuta daude. Jainkoagandik jasotako «bedeinkapenak» testigarantzako dei larria dira, ebanjelizatze deia.

Igandearen kristau ospakizunak, elkarte ebanjelizatzaile eta misiolariak sustatzeko sua izan beharko luke.

Igandea eta konpromezu hiritar-soziala

61. Igandea ospatzen duen Eliza, «gizadi osoarekin bidean doan eta munduaren zoria bizi duen» Eliza bera da (*Gaudium et spes*, 40. z.). Horregatik ospakizunak, gizakiarekiko konpromezua indar berriz onartzera eramanez beharko luke.

Kristau elkarrekin igandearen ikuspegitik begiratzen duen mundu hori, Jainkoarekin eta bere buruarekin adiskidetu izan den mundua da: justizia, bakea, solidaritza, senidetasun jatorra nagusitu zaizkion mundua, ogia eta esperantza elkarbanatzen dituen mundua. Eukaristia, antzaldatzearen misterioa da, eta, beraz, «justizia nagusi den zeru berria eta lur berria» (2 Pe 3,13) aurrerartzen ditu. Ikuskizun eder hori salaketa bihurtzen da, munduak erakusten duen kontrajartzearen aurrean: alde batetik, igandek azaltzen eta agintzen duen mundua eta, bestetik, bizitzea tokatzen zaigun eta gaitzean oinarritua dagoen mundua, injustiziaz, ezberdinkeria negargarriz, egoismoz, manipulazioz eta us- telkeriaz egindako mundua.

Kristau igandek, gizakia erabat salbatzeko gurutzeko heriotzaraino maite izan gintuen Haren oparia gogorarazten digu. Kristau elkarrekin Hari itsasten zaio eta Harekin bat egiten du, Beraren gorputz entregatua eta odol isuria hartze-koan, erantzukizun handiko ezaugarria berrituz.

Kristau igandek, era honetan biziz gero, beren erabakia berritzera sustatu behar ditu kristauak: Jainkoak gizadiarentzat daukan asmo salbatzailea histo-rian gertarazteko erabakia berritzera; eta horretarako gizakiaren eskubide zan- patuen alde borrokatu beharko du, justizian, maitasunean eta askatasunean oi- narritutako biziera berri baten bila saiatu, eta herrien adiskidetzea eta baketzea ahaleginez bilatu, era horretan Jainkoaren Erreinua historian gero eta gehiago gerta dadin ahaleginduz.

⁴⁰ Ikus Jn 20,21-22.

⁴¹ Joan Paulo II.a, *Redemptoris missio* Entziklika, 2. z.

V.- ZENBAIT PROPOSAMEN IGANDEAREN KRISTAU OSPAKIZUNA BIZIBERRITZEKO

Pastoral sormenari erronka

62. Gure Pastoral Idazkiaren azken zati honetan, berrikuntzarako bide batzuk eskaintzen ditugu, kristauon igandea gehiago estimatzen lagun diezaguten. Hori ameskeriarik gabe egin nahi genuke, konturaturik, kultura ikuspegitik era askotakoa den gizarte batean bizi garela, eta ahaztu gabe, ohitura berriak sortzen ari direla, lehen aipatu ditugun aldaketa soziologikoen harira. Igandearen balioak berriro aurkitu eta berreskuratzeko pastoral eginkizun horri heldu beharrean gaude, antsiak lehenari begira jarri gabe, baina konfidantza eta ziurtasun handia izanez igandearen giza eta kristau balioetan, baita gaurko gizaki eta gizartearen-tzat ere.

Horretarako abiapuntua ez daiteke hau besterik izan: gure elkartean kristau bizitza oso-osorik berritzeko, igandea biziberritzeak duen garrantzian erabateko uste osoa izatea. Igandearen etorkizunean dago, neurri handi batean, Elizaren etorkizuna.

Gure kristau elkarteen asmamen eta sormenari egiten zaien erronka garbi baten aurrean aurkitzen gara. Igandearen ospakizunean ikusten ditugun akatsak egokiera ona izan daitezke, geure erantzukizunaz berriro konturatzeko eta pastoral ausardiaz igandearen berrikuntza bideratzeko.

Guztion eginkizuna

63. Igandearen berrikuntza, guztion onerako den eta guztioi dagokigun zeregina da. Artzain eta fededun, erlijioso eta sekular, bakoitza bere izaera berezitik, denok gaude egintzaz parte hartzera deituak, guztiona den eginkizun honen zerbitzuan. Badira igandearen balio batzuk, orokorki giza mailako guztion onari begiratzen diotenak eta, beraz, kristauok beste hiritar guztiekin elkarturik zaindu eta indartu behar ditugunak. Baina egia da, bestalde, igandearen kristau alderdi berezia fedearen argira eta kristau elkarte barrutik bakarrik irits gaitezkeela aurkitzera eta indartzera.

Berrikuntza lan honetan aparteko zeregina dugu gotzain eta apaizok, katekista eta talde arduradunek, parroketako liturgi taldekoek, elkarte eta era guzti-etako taldeek. Baina, azken batean, kristau bakoitza da igandearen biziberrikuntza eta ospakizuna gauzatu behar duena, bai bere bizitza pertsonalean bai famili eta elkarte bizitzan.

Katekesi funtsezkoa

64. Lehenengo eta behin, ikusten dugu behar-beharrezkoa dela katekesi sistematu eta nahiko zabal egina, kristauon igandeari buruz eta igandearen ospakizunari buruz. Katekesi honen helburua honetan jarri beharko da: igandearen balio teologikoak eta giza alorrekoak aurkitzean. Katekesi honek, lehen aipatu ditugun teologi alderdien azalpen egokia abiapuntu harturik, igandearen

egiazko «mistika» sarrarazten eta ematen ahalegindu behar du. Igandearen ezaugarrien eta ospakizun alderdien erakuspena gogo berri bat sortzen joango da, parte hartuz eta gogatsu ospatzeko.

Gai honi buruz, kontuan izatekoa da, bereziki eukaristi ospakizuna katekesi bikaina gerta daitekeela –batzutan hala nahita egina gainera–, kristauon igandearen alderdi bereziei buruz. Egiten diren ohikuneak eta keinuak egiazko beren esanahian aurkeztea, ulertzeko behar-beharrezkoa izateaz gainera, oso onuragarria gerta daiteke.

Katekesi ekintza hau adin desberdinetako kristau guztiei eskaini behar zaie: haur, gaztetxo, gazte eta helduei. Batzutan, igandeko batzarrean bildu den kristau elkarte osoa izango da, zenbait argibide eta oharkizun jasoko dituen. Bestetan, pedagogikoki aurreraka doan egitasmo sistematu baten beharra izango da, katekesi hori jasotzen dutenen adina eta gaitasuna kontuan hartzen direla. Ardura berezia izan beharko da, kristau sarbideko sakramentu aurreko katekumenal ibilbideetan: Bataio, Sendotza eta Eukaristiakoetan, alegia. On izango litzateke, gai honi dagokionez, pastoral azterketa bat egitea, ikusteko, nola eskaintzen den katekesi ibilbide hauetan igandearen ospakizuna bere alderdi guztietan.

Igandea ospatzeko kristauei ezartzen zaien aginduari buruzko katekesia egokiak argi utzi behar du, hil edo biziko garrantzia duela agindu horrek kristau elkartearentzat eta elkartekide bakoitzarentzat. Legez ezarritako agindua baino gehiago, beharizan bat da hori. Kristauon igandearen balioak eta aberastasunak aurkitzearekin, bere kasa barreiatzen joango da, agindu honi lege ikuspegitik eta era kasuistikoan begiratzeko modua.

Idazki honetan eskaintzen ditugun gogoetek laguntza eman dezakete, katekesi lanerako zenbait lagungarri prestatzeko. Gonbite egiten diegu katekesi eta liturgi arduradunei pastoral zerbitzu hau egitera, parroki, bailara nahiz elizbarruti alorrean. Eta orain artean eskaini izan dituzten eta etorkizunean ere eskainiko dituzten zerbitzuengatik berauei gure esker ona agertzearekin batera, opa ere opa diegu, erabiliak izatearen estimua jaso dezatela.

Behin eta berriz esan beharra dago, igandeari buruzko katekesi ekintza ez dela igandeko Eukaristiara mugatu behar. Egun osoa da igande. Igande osoa da «Jaunaren eguna». Eukaristiaren ospakizuna egunaren gunea da, jaiaren muin nagusia. Baina, horrekin batera, igandearen berrikuntzak kontuan hartu beharko ditu lehen aipatutako beste ospakizun alderdiak ere. Orain ondoren, zenbait argibide eta ekintza-aukera eskaintzen ditugu, alderdi horietako bakoitzari buruz.

Batzarra eta igandeko Eukaristia

• *Elkarte pentsakera landu*

65. Elkarte pentsakera lortu nahi duen hezierak izan behar du, pastoral ekintzaren utzi ezinezko helburu, igandeari berriro bere balioa emateko eta, bereziki, igandeko batzarrean parte hartzea indartzeko. Nekez estimatuko du kris-

tauak igandeko bilera, lehenagotik Elizaren misterioan sartzen lagundu ez bazaio eta berari dagokion kristau elkarte bihotzez maitatzera iritsi ez bada.

Bai artzainok bai katekesi eta liturgi alorreko arduradunek azpimarratu beharra daukagu, igandeko batzarren elkarte alderdia, eta gainera indartu egin behar dugu alderdi hori ekinaren ekinez eta pazientzia handiz. Batzar haue-tan parte hartzea elkarte senaren ondorio da, baina, aldi berean, landu egiten du elkarte sena.

Elizak zenbait ezaugarri eta ohikune erabili ohi ditu elkarte sena sortu eta adierazteko. Beharrezkoa da ezaugarri eta ohikune horien esanahia ondo eza-gutu, ulertu eta erabiltzea. Beharrezkoa da, bestalde, ohiturakerian ez erortzea, keinuen hizkuntzak duen indar adierazlea jasotzeko.

- ***Norbere elkartarekin***

66. Bidezkoa da eta komenigarria bakoitza, eskuarki, berari dagokion elkartearekin batzarrean biltzea; normalki, bere parroki elkarte izango da. Hori elkar-teko kide guztientzat da egia; baina, bereziki, parrokian nolabaiteko arduraren bat dutenentzat eta parroki ekintzetan sarturik dauden taldeentzat da hori egia.

Igandean normalki ez da eukaristi ospakizunerako deirik egingo, ospaki-zuna, alegia, talde txikitik edota parte hartzaile jakin batzuetara mugaturik egi-teko⁴². Gauza bera esan behar da, zenbait bilera, irtenaldi eta ekintzari buruz ere, norberari dagokion igandeko batzarrean parte hartzea normalki ezinezko egiten badute.

Nolanahi ere, bere parrokiatik kanpora gertatzeak ez du arrazoi izan behar, kristau taldeek, batez ere heziera alorrekoek, beste nonbait Eukaristia ez ospa-tzeko. Horrelako utzikeria ohitura bihurtuz gero, kristauon igande ospakizuna-ren galera handia izango litzateke, baina gainera oker izugarria ere izango litza-teke heziera ikuspegitik.

Bidezkoa da, baita ere, ekintza-biziera duten erlijiosoa elkar-teek, ahal du-ten neurrian, parrokiako igandeko batzarrean parte hartzea, bai berei dagokien parrokian, bai apostolu lana egiten duten parrokian. Horrela, eliz elkartasuna-ren testigantza garbia ematen dute, eta ikusteko moduan Jainko herrian sartu-rik daudenaren ezaugarria eskaintzen; agerian geratzen da hori, horrela joka-tzen duten erlijiosoa elkar-teen esperientzian.

Kristau elkarte guztiek kontu handiz zaindu beharreko gauza da, bestalde, igandeko beren batzarrera etortzen diren guztiei harrera on egitea eta berekin hartzea. Ohar hau, bereziki, baserri giroko herrietan, kostaldekoetan eta tu-rismo lekuetan da kontuan hartzekoa.

Zenbait arrazoirengatik, norbaitek, berea ez den kristau batzar edo elkar-te-tan parte hartzen duenean, ez du, hala ere, han kanpotar sentitu behar. Euka-risti ospakizun oro Elizaren ospakizun da: gure Jaun berpiztuarengan duen fe-

⁴² Jainko Gurtzarako Kongregazio Santua, *Actio pastoralis* Irakaspena talde berezien-tzako Mezei buruz, 1969, maiatzak 15, 10. a) z.

dean bildurik, eta ogiaren zatitzeak adierazten duen maitasun lokarriz bat egina dagoen Elizaren ospakizun. Horregatik, inolako kristauak ez du bere burua arrotz jo behar eukaristi ospakizunean; era guztietako ezberdintasun sozial eta kulturalen gainetik, Eukaristiak, «senide» direnen ospakizun izan behar delako beti.

Nolanahi ere, kristauak ez du bere bizitza erlijiosoa eta, bereziki, eukaristi ospakizuna bakoizkeriaz eta norberari bakarrik dagokion gauza pribatu bezala ulertu eta erabili behar, kristau elkarte jakin eta iraunkor batekin loturarik eta harremanik gabe.

- ***Igandeko ospakizunak, apaizik ez denean***

67. Aipamen berezia egin beharra dago hemen, apaizak egoterik ez daukalako, diakono, erlijioso/erlijiosoa nahiz sekular bat buru dela egiten diren igandeko ospakizunei buruz. Lehenengo eta behin, bere neurrian aitortu nahi dugu eta eskertu, hauek kristau elkarte horiei egiten dieten zerbitzua; izan ere, bizitzako beste alderdietan ere, kultura eta gizarte alorretan pobretzen ari diren elkarteak dira, nahiz eta hori giza ikuspegitik bidezkoa izan ez. Adoretu egin nahi ditugu, kristau elkarteei dei egiteko eta berorien aurrean buru egoteko erantzukizuna beren gain hartu dutenak; jakin dezatela hauek, balio handiko eginkizuna betetzen dutela, pobre eta txikien laguna den Jainkoaren aurrean, eta, apaizaren eta sekular talde baten laguntzaz, egoki presta daitezela eginkizun hori ondo betetzeko.

Kristau elkarteak berezko eta beharrezko lotura duenez Eukaristiarekin eta honek apaizarekin, beharrezkoa da apaiza kristau elkarte horietara azaltzeko bideak nolabait asmatzea. Horrela, begibistako egingo dira, kristau elkarte guztien artean izan behar duten batasuna eta elkartasuna, eukaristi ospakizuna oinarri dela, hain zuzen.

- ***Parte hartze bizia***

68. Elkarte bateko kide izatearen kontzientzia, kide guztien parte hartzearen bidez indartzen da eta sendotzen. Batzarraren ezaugarria bera hobeto gauzatzen da, parte hartze hori ondo antolatua eta bizia denean. Oinarrizko ikuspegi hone-tatik, ahaleginak egiten jarraitu behar dugu, geure ospakizunak hobeto eginak izan daitezen. Indartu egin behar da sekularren jarduna zenbait liturgi zerbitzutan: irakurle, ohargile, salmolari, akolito, abeslari, etab.; baita elkarte osoaren parte hartzea ere, erantzun, goralpen, kantu eta otoitzen bidez. Kanpo aldeko parte hartze honek, ondo egiten bada, aberastu egiten du, barnetik ere Kristoren eta Elizaren misterioan parte hartzea. Barnetik parte hartze horrek Kristoren Gorputz-Odolak sakramentuz hartzean eta senideekin elkartzean lortuko du bere gailurra.

Kristau elkartean ospakizun biziak, sortzaileak, bizitzarekin lotuak eta jai giro handiagokoak lortzeko, liturgi taldeak eskaintzen duen laguntzaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Talde honen zeregina da –ospakizunean buru dagoen apaiza lagun dutela–, igandeko ospakizunaren prestaeran, ospakizunean bertan eta beronen azterketan parte hartzea: era askotako zerbitzuen banaketa egokia egin, alegia, eta kantu eta oharpenen egitaraua antolatu; bereziki irakur-

gaien aldarrikapena zaindu; eta ospakizunaren edertasun eta jai giroaz arduratu.

- ***Buru egiten duen apaiza***

69. Buru egiten duen apaizaren jardunarekin loturik dago, berezi-bereziki, eukaristi ospakizunaren bikaintasuna. Badakigu zenbaterainoko lan pertsonala eskatzen duen pastoral eginkizun hau betetzeak; gehiegizkoa ere bai batzutan. Horregatik, hain zuzen, adore eman nahi diegu gure apaizei, pastoral maitasuneko espiritu biziz onar dezaten erantzukizun hau.

Horren baitan egon daiteke, neurri handi batean, ospakizuna bizia izatea, parte hartze handikoa eta finitu onekoa elkarte osoarentzat. Apaiz ministeritzaren zerbitzurik handiena den liturgi eginkizun honetan, gure Jauna tartean dagoenaren sakramentu bizi denez jardun behar du beti, eta batzarrean bildua dagoen elkarte onartu, ezagutu eta beraren eskura jartzen den artzain ardurasu bezala.

Guzti horregatik eta gure garaiotan daukagun apaiz eskasia nabarmena kontuan izanik, garrantzi handiko ondorioak dituen pastoral eskakizun izan daiteke, parrokia edota leku bakoitzeko eukaristi ospakizunen zenbatekoa aztertzea. Hori egitean, beharrezko izango da elkarrekin ondo jostea, kristau elkar-tearen egiazko premiak, alde batetik, eta apaizen ahalbideak eta ospakizunen maila ona, bestetik. Erabakiak hartzekoan, azken irizpidea ez daiteke izan, igandeko agindua betetzeko erraztasunik handienak eskaini nahia. Kontuan izan beharko da, apaizek elkarri eman diezaioketeen laguntza ere, beren ministeritza betetzeko.

- ***Ospakizunera etortzen ez direnak***

70. Era askotako arrazoiak direla medio, igandeko batzarrean gorputzez egon ezin direnek, bat egin dezakete ospakizunarekin oroipenean eta gogoz; Jesukristorekin duten batasunaren agerpen dira, izan ere, sentipen horiek, eta eliz elkar-tearekin ere duten batasunaren ezaugarri, Espiritu bera delako batzarrean bildurik dauden senideei ere biziarnasa ematen diena. Kristau horiei esker, Eukaristian ospatutako Kristo berpiztuaren misterioa gogora ekartzen da eritetxeetan, zerbitzu enpresetan, zahar, bakarti eta nolana hiko ezinduen etxeetan, eta espetxeetan ere. Batzarrean biltzen den elkarteak, bestalde, oroipen anaikorra izango du eskuarki senide hauentzat, eta gure Jaunaren eta itxaropenaren arnasa biziemailea eramango dizkiete.

Irratiz edota telebistaz egindako eukaristi ospakizunaren emanaldia, ezinbesteko bere mugak eta guzti, baliabide ona izan daiteke gaixo eta ezinduentzat, liturgi batzarrean aldarrikatzen den Jainkoaren Hitzaren aberastasunak jasotzeko eta elkarteak ospatzen duen eukaristi oparian bat egiteko. Komunikabideen bitartez kristau batzarrarekin loturik egote hau benetan aberatsagoa gertatuko litzateke, baldin eta elkarteko kideren batzuk gaixo eta ezindu hauek ikustera joango balira eta, gehiago oraindik, gure Jaunaren Gorputza emango balite, Elizaren erabakien arabera.

Beren buruak kristautzat harturik, beren erabakiz igandeko batzarrera joateari utzita daudenei ulertarazi nahi genieke, ondo josi ez daitekeen planteamendu okerra dela «praktikatzailerik ez den kristau» izan nahia. Ez dago kristau izaterik bakarka; eta Jesukristoren Elizako kide denaren ezaugarriarik adierazgarri eta sinesgarrienetakoa, igandeko eukaristi ospakizunean parte hartzea da. Badakigu, bestalde, batzarrean biltzen eta Eukaristia ospatzen dugunoi testigantza ematea dagokigula: era askotako gure mugapen eta leialtasun ezak eta guzti, guretzat batzarrak eta sakramentuak duten indar eraldatzailearen testigantza sinesgarria ematea.

- ***Gazteen aldentzea***

71. Gauza nabarmena da, igandeko ospakizunetatik gazte asko aldentu egin dela ikustea. Kristau gurasoak askotan hainbeste kezkatzen dituen gertakari hau oso kezagarria da guretzat ere. Askotan aztertu izan ditugu, oso zabaldua dagoen jokabide honen sustraiak. Era askotakoak eta desberdinak dira gertaera honen arrazoiak.

Kristau elkarte osoari nahi genioke adierazi, azterketa bat egin beharko genukeela, zer-nolako aitormena ematen diegun gai honetan gazteei, eta zenbateraino arduratzen garen, beroriei ospakizunetan harrera on egiten. Batez ere artzainei eta katekistei proposamen egiten diegu, azter dezatela, nolako arreta hartu izan duten, eta oraindik ere hartzen duten, hain garrantzitsua den gai jakin honi buruz, haur eta gaztetxoek fede hezierako prozesuan. Gazteei ere, bereziki Jesusek eta Haren Ebanjelioak liluraturik dauzkan gazteei, dei egiten diegu, igandeko batzarretan parte hartzera kristau elkarte osoarekin batera; joan daitezela borondate onez, batzar horietan ospatu nahi dena aurkitu asmoz; eta beren buruak eskaini ditzatela, batzar horiek beren fede esperientzia bereziaz eta gazte tankeraz aberastera.

Jainkoaren Hitzaz entzutea

72. Igandeko ospakizunean, lehen mailako garrantzia du Jainkoaren Hitzak. Ospakizun bakoitzean Jainkoak bere herriari esaten dion Hitz bizia da, eta gaurkoa. Liturgiako elkarrizketan, batzarrean bildutako elkarteari, Hitz hori isiltasunean, arretaz eta menpekotasunez onartzea dagokio; eta gero Jainkoari bere erantzuna ematea kantuz eta otoitzez, bai pertsonalki bai elkartean.

Ahaleginak egin behar ditugu, bibli irakurgaien aldarrikapena ahalik eta txukunen egiteko, agerpeneko mezua leialki emana izan dadin beti. Merezi duen ahalegina izango da, gure pastoral indarrak eta denbora irakurleak ondo prestatzearen zerbitzuan jartzea, irakurketa ahal bezain ondo eginga izan dadin, bai teknika aldetik, baina batez ere Hitzaren aldarrikapenarekin lortu nahi den espirituzko emaitza eta komunikapenari begiratuz. Ardura berezia jarri beharko da, bat-bateko jardunaldian ez erortzen.

Zail izango da Hitzaren liturgia berritu eta aberastea, baldin eta pastoral arreta jartzen ez badugu, irakurleei eta orokorki elkarte osoari bibli heziera ematen. Jainkoaren Hitzaz gero eta hobeto jasotzea lortu nahi badugu, beha-

rrezko izango da, bibli kultura eta pentsakera geureganatzen joatea, beti ere kontuan izanik bakoitzaren adina eta kultura maila.

Bereziki gomendagarria da, ospakizunetan –zerbitzu jakinen bat eginez– parte hartu behar duten guztien prestaera, aldian-aldian eta iraunkorki bibli eta liturgi heziera taldeen bilerak eginez.

Jainko Hitzaren entzuteak ez du kristau batzarretan egiten den aldarrikapenera mugatu behar. Liburu Santua bakarka nahiz familian irakurri eta berari buruz gogoeta egitera bultzatu behar ditugu kristauak. Badirudi, gure garaiotan isilean gorde nahi dela Jainkoa; horregatik, erlijiozko elkarrizketa indarberritzeko, laguntza bikaina izan daiteke irakurketa honi denboraldi bat eskaintzea, bai igandeko ospakizunaren osagai gisa, bai astean zehar. Gauza ona izango litzateke bideak asmatzea, igandeko ospakizunean irakurritako Jainkoaren Hitz hori bera berriro irakurri eta berari buruz gogoeta egiten laguntzeko.

Bai apaizek bai liturgi pastoraltzan diharduten taldeek, arreta bereziz zaindu behar dute, Jainko Hitzaren mahai oparoa bere osoan irits dadin kristau elkartera. Horrek esan nahi du, beharrezkoa dela, liturgi liburuetan eskaintzen den bibli pasarteen gaur egungo aukera errespetatzea, bere aukera zabal eta aberatsean errespetatzea, alegia.

Ez da, beraz, onartzekoa, zenbait lekutan –batez ere ospakizun bereziak direla eta–, sartzen ari den ohitura; aldatu egiten baitira bibli pasarteak, eta beste testu batzuk sartzen dira, nahiz eta kristau idazleen testuak izan. Jainkoaren Hitzak duintasun berezia du; apartekoa da; horregatik, hala zaindu behar da, eta ez da inolako beste edozerekin nahastu edo zalantzan jarri behar.

Aipatu dugu lehenago, «jardunaldi berezien» egintzak izan dezakeen esanahia igandeko eukaristi ospakizunaren barruan; gure garaiotan munduak eta Elizak berak bizi dituzten arazo eta behar egoerak aurrean jartzea baita jardunaldi horien helburua. Horrek, ordea, badu bere arriskua; aldatu eta ilundu egin dezake liturgi urtearen joan-haria, baita Kristoren misterio osoa ulertzeran eman nahi lukeen ibilbide pedagogikoa ere. Eta honek liturgi aldi berezietarako balio du, batez ere. Horregatik, eskari egiten diegu igandeko ospakizunak antolatzeke ardura dutenei, gai honek duen zailtasunaz oharturik, saia daitezela konponbiderik egokiena aurkitzen.

Nolanahi ere, beharrezko da, ospakizun barruan Jainkoaren Hitza gaurko gure egoera jakinarekin lotzea, bai pertsona bakoitzari bai elkarteari dagokionaz. Homilia, oharpen eta ospakizunaren beste zenbait osagaien bitartez, agerian jarri behar dira, Ebanjelioaren alderdi jendartekoak eta sozialak. Zenbait alditan, egoki izan daiteke, bizitzako erantzukizunak eta munduaren aurrean eman beharreko testigantza xeheki adieraztea: familia dela, lana, jendarteko bizitza, etab.

Eskari berezia egin nahi diegu, azkenik, igandeko batzarretan Eukaristia ospatzen duten apaizei, dagokion balio guztia eman diezaiotela, ospakizun horien funtsezko zati den Jainkoaren Hitza hots egitearen ministeritzari. Homilia arduraz prestatzen emandako denbora, pastoral ikuspegitik ez da inoiz ere alferrik galdua izango. Eta homilian, lekuko Elizak adierazitako helburu eta kezka

berezien aipamena egitea, elkartasun seinale izango da, Eukaristiaren ospakizunak bere-berea duen elkartasunaren seinale.

Senideekin elkarbanatzea

73. Igandean, kristau elkarteak sakontasun eta ahalegin bereziz bizi behar du maitasunaren agindua. Elkarbanatzea eskatzen duen eguna da: fedea, maitasuna, itxaropena, denbora, poza eta baita ondasun materialak ere elkarbanatzea. Igandeak besteengana hurbiltzea eskatzen du: norbere buruaren eskaintza-jarreran eta dohainik, presarik gabe eta bestelako beharkizunik gabe, besteentzat erregali izan nahirik hurbildu ere. Horrelako hurbiltasun jarrera eta senideekin batera bizi nahia izan behar dugu igandean zehar, nola eukaristi ospakizun barruan hala handik kanpora.

Ondo egindako eukaristi ospakizunean, kristau elkarteak hazi egiten da, bai kanpo aldera bai barru aldera. Baina hori gerta dadin, garrantzi handia du elkartasunaren ezaugarriak zaintzeak: elkarrenganako harrera, elizan sakabana-turik ez egotea, elkar agurtzea bihotzez eta presarik gabe; damu otoitza eta bake ohikunea; kantua eta elkarrekin otoitz egitea; diru-bilketaren bidez ondasunak elkarbanatzea; Eukaristiako ogi-ardo beretik hartzea.

Ospakizunaren barruan entzun behar da, bertako nahiz mundu zabaleko kezka eta arazo sozialen oihartzuna; baita solidaritzara eta hiritar nahiz sozial bizitarako konpromezuak hartzera egiten den deia ere. Galdera egin beharko genieke geure buruei, egia ote den igandeko gure batzarrek aintzakotzat hartzen dituztela eskuarki, elkarteko sufrimen eta beharrak, geure herrikoak eta mundu guztiko nazioetakoak ere. Bakea, pertsonen eta taldeen giza eskubideak, lurbi-rako ondasunen banaketa zuzena, bizia eta naturarenganako errespetua eta maitasuna: guzti hauek, kristauok geure ospakizunetan sarritan gogora ekarri behar ditugun balioak dira; eta Jainkoarekiko gure elkarrizketan ere sartu behar ditugunak, otoitz eran.

Mundu guztiarekiko senidetasunaren ezaugarri da, elizbarrutiko jardunaldiak nahiz misio egunak edota solidaritzazko, eta senide eta lurralde behartsuei laguntzeko eratutako jardunaldiak direla eta, egin ohi diren diru eskeetan bihotz zabalez egindako emaitza ere.

Ospakizunetik kanpora, igande osoak, besteekin elkartu eta harreman bihozkorrak izateko egun izan behar du: familia, lagun eta ingurukoekin; gaixo, preso, eta bakardadean edota hartarako egoitzetan bizi diren zaharrei ikustaldi egiteko. Hau da, kristauok norberaren eta besteen bakardadea maitasunez bete nahi duten eguna.

Askorentzat, igandea da, era berezian familiarentzat gorde dezaketen egun bakarra, elkarrekin bizi eta harremanak izanez, beren bizitzako pozak eta kezkak ere elkarri adierazteko. Batzutan igandea izan ohi da, denek batera bazkaltzen duten asteko egun bakarra; familiako kide guztiak astiro eta pozik elkar ikusten dutena, alegia, eta elkarrekin bizi direna. Gauza ederra da, bestalde, familia osoa inoiz batera ikustea igandeko Eukaristian.

Baina ez dugu erori behar, familiaren ikuspegi eta balioztapen itxiegieta. Bere baitan ixten den familia ikusmira motza izateko arriskua du, eta kristau maitasunak eskatzen duen giza eta sozial alorretarako irekiera murrizteko arriskua.

Jaia, eta Jaunarengan poztea

74. Lehen azaldu ditugu, Idazki honen erdiguneko zatian, igandetik sortzen den pozaren sustraiak. Poz hori eta beronen teologi eta antropologi alorretako ikuspegia agerian jarri behar dira, liturgi ospakizunaren tankera guztian eta jai giroan. Eta egun osoan zehar, zabaldu beharko da jai eta poz giro hori.

Ospakizunaren jai alderdia ondoen adieraz dezaketen osagaietako bat kantua da. Elkarre bakoitzak, ahal duen neurrian, gure herriak musika eta kanturako berez dituen dohainak lantzen eta adierazten jarraitu behar du. Ospakizuna prestatzekoan, oreka egokia lortzen ahalegindu behar da, herriaren, bakarlarien eta parrokiako abestaldearen jardunen artean. Joan-etorri handiko kontua da kantuen aukera egoki egitea, ospakizunaren uneari begiratuz eta liturgi aldiaren berezitasuna kontuan izanik. Jaien mailak bereizi eta egoki ospatzeko, musika tresnak erabil daitezke, batez ere organoa, eta ahotsetara abesten duen taldea, horretarako gai diren lekuetan.

Igandean zehar, oso egokia izango da, bakarka nahiz taldean, izadiaz gozamen hartzea, Jainko sortzailearen jakinduria, ahalmena, edertasuna eta ontasuna ahogozatuz. Gozamen honi esker aurki dezakete kristauak, baso, mendi edota itsasora egindako irtenaldien esanahi sakonagoa eta pozgarria. Izadiaren baitan aurkitu ahal izango ditugu, geure buruekin eta Jainkoarekin topo egiteko gizakiak beharrezko dituen isil une eta barealdiak.

Kristauok igandeari eman ohi diogun esanahiaren berezitasun izan daiteke, bestalde, lagunekin gustura eta astiro egotea, lasai eta jai giroan; baita senitartekoen bilera eta festak ere. On izango da, kristau familiek horrelako elkarganatze eta ospakizunak Jainkoarenganako esker on bihurtzea, Berarengandik hartutako dohainengatik; eta, gainera, senitarteko elkarganatze horretan aurkitu eta bizi izandako balio eta bizikizunak gizartera eramaten saiatu behar dute.

Asteroko atsedeen egun honek egokiera ematen du, bakoitzak gustukoak dituen zenbait ekintzetarako denbora gehiago hartzeko: arte gaietarako zaletasuna dela, eskulanetarako edota kiroltarako; izan ere, lanean igarotzen den aste barruan zail egiten da alderdi horiek lantzea. Igandeko ohitura hauek asko lagun dezakete, norberaren espirituzko aberastasuna eta barne oreka orokorra lortzen.

Jaiegunetako jardunak eta aisialdi osasuntsuko ekintza hauek egingo badira, beharrezko da igandean egiazko atsedeen soziala ziurtatzea eta elkarre guztia lanetik aske egotea. Egutegiaren eta lanaldien baldintzapean bizi den gurea bezalako gizarrean, garrantzi handia eman behar zaio –eta ez garrantzi erlijiosoa bakarrik, baita giza mailakoa ere–, igandez denek atsedeen izatea zaintzeari.

Eliztar maiteok, gure ustetan oinarrizkoak diren zenbait gogoeta eskaini dizuegu, igandearen kristau ospakizunari buruz; eta gogoetekin batera, zenbait argibide ere bai, igandea hobeto ospatzeko. Gure asmoa idazki honetan ez da izan, egin daitezkeen gogoeta eta argibide guztiak eskaintzea. Irakaspen alderdia ezin zitekeen izan, Pastoral Idazki baten neurritz kanpoko eta zabalagoa. Gainera, argibide praktiko hauek egokitu eta zehaztu egin beharko dira gehiago, lekuko gure Eliza bakoitzaren nolakotasunak eta egoera bereziak kontuan izanik.

Nolanahi ere, badugu uste on, hemen esandakoak onuragarri izango zaizkizuela, batez ere pazko misterioa ondo ospatzeko: Garizumarekin prestatu eta Pazko aldiko igandeetan zehar luzatuko den pazko misterioa. Bihotz-berritzera bereziki Garizuman egiten zaigun deiak, gure Jaunaren piztuerako Pazkoa ospatzeari begiratzen dio, aurten ere kristau bakoitzarengan gauzatuko den Pazkoa ospatzeari. Kristogan bizi beteagoaren poza nabari dezazuela denok, hori da bene-benetan opa dizueguna, eta Berpiztuaren bizi berri horrek argia, poza eta itxaropena ekar diezazkizuela. Hori bera opa diegu, Jesusen Ama eta Elizaren Ama den Andre Mariaren babespean jartzen ditugun kristau elkarte guztiei ere.

Iruñea eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1993, otsailak 24
Hausterre eguna

- ✘ **Jose Maria**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Koldobika M.**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Gasteizko Gotzaina